

Enplegurako prestakuntzaren alorreko prestakuntza-ekintzak kudeatzeko gidaliburu oinarrizkoa

2018 - 2020

**LANBIDEKO LURRALDE-BULEGOETAKO PRESTAKUNTZA-KUDEATZAILEAK
PRESTAKUNTZA-ZENTRO ETA -ERAKUNDEAK**

2018KO URRIA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK DIRUZ LAGUNDUTAKO LANGABEEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK

1. SARRERA ETA OHAR OROKORRAK	2
2. PRESTAKUNTZA-MODULUEN BANANTZEA PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRI OSO BATEAN	3
3. ONARTUTAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZA: WEBGUNEAN ARGITARATZEA ETA ESKATZAILEEN AURREINSKRIPZIOA	3
4. IKASTAROAREN HASIERAKO KOMUNIKAZIOA: irakasleak eta egutegia	3
4.1. Hasierako datuak: V. eranskina, V.I eranskina, ebaluaziorako probak eta tresnak, egutegia	4
4.2. Datak eta ordutegiak	5
4.3. Ikasleak	5
4.4. Prestatzaileak eta tutoreak: Akreditazioa	5
5. ESKABIDEAK JASOTZEA ETA HAUTAKETA-PROZESUA	7
6. IKASTAROAREN HASIERAN	12
7. BERTARATZEAREN KONTROLA ETA EBALUAZIOA	13
7.1. Jarraipena	13
7.2. Gaindituta dauden prestakuntza-modulu edo unitate egiaztagarrietara joatetik salbuestea	14
7.3. Ikastaroaren amaiera	15
8. PARTE-HARTZAILEEN EBALUAZIOA	16
8.1. Ikaskuntzaren ebaluazioa	16
8.1.1 Ebaluazioa balioztatzea: VI eranskina eta bertaratze-orriak	16
9. PRESTAKUNTZA PRAKTIKOA LANTOKIAN EGITEKO MODULUA ETA LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKAK	17
10. PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIAK ESKATZEA	20
11. NOLA EGIN PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIETAKO PRESTAKUNTZA-MODULUEN EBALUAZIOA	22

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK DIRUZ LAGUNDUTAKO LANGABEEI BIDERATUTAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK

1. SARRERA ETA OHAR OROKORRAK

2018-2019 Deialdirako programatutako ikastaroak kudeatzen dituzten Lanbideko bulegoetako prestakuntza-teknikari guztiek eta prestakuntza-zentro/erakundeek bete beharreko “gutxieneko arau” batzuk dira honako hauek.

Ikastaroen kudeaketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren LAN-F aplikazioaren bidez egingo da.

Zehazki, LAN-F aplikazioaren Erabiltzailearen Gidako zenbait kontu argituko dituzte, bai eta Lanbideko Zuzendari Nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko langabetuentzako antolatutako prestakuntza-ekintzen 2018-2019ko Deialdia bera ere (ekintza horiek kudeatzeko araua eta jarraibidea baita deialdi hori).

Lanbideko bulegoak izango dira prestakuntza-ekintzak kudeatzeko erreferentziak.

Prestakuntza-ekintza horiek bertaratze-modalitatekoak eta teleprestakuntza-modalitatekoak izan daitezke.

Prestakuntza-planak egikaritu behar dira diru-laguntza emateko behin-betiko ebazpena jakinarazi ondorengo egunetik eta 2020ko azaroaren 16ko bitarteko epean (lantokiko prestakuntza praktikoaren modulua edo lanez kanpoko praktikak barne).

Gutxienez, prestakuntza-ekintzetako bati ekin beharko zaio 2018an eta, gehienez, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazi eta bi hilabeteko epean. Planak ekintza egiztagarriak edukitzekotan, lehenengo ekintza hori egiztagarria izan beharko du.

Asko jota, prestakuntza-planaren baitan dauden prestakuntza ekintzen %70 2019ko abenduaren 31 baino lehen hasi behar da.

Diruz lagundutako bertaratze-modalitateko prestakuntza-ekintzetan, 10-20 parte-hartzaile bitarte arituko dira.

Ez dira martxan jarriko 10 parte-hartzaile baino gutxiago bildu dituzten prestakuntza-saioak (deialdiaren 3.6 artikulua).

Prestakuntza-ekintzak onartzeko ebazpenak izaera espezifikoak eman dakieke prestakuntza-ekintzei eta berariaz zehaztu, horrela ebartziz gero, zer kolektiborentzat den. Kolektibo horri eta sarbiderako daukan profilari begiratuko zaio, ikasleen inskripzio- eta hautaketa-prozesua zehazteko.

Zeharkako prestakuntza-unitateak dituzten moduluak ematen dituzten profesionaltasun-ziurtagirien kasuetan, zeharkako unitate horiek dituzten aurreneko moduluan landu behar dira unitateok. Prestakuntza-moduluak ematerakoan, ahalegina egin behar da aurreneko bost egunetan ez betetzeko orduen % 75a, ekintza epearen barruan hasi dutenek aukera izan dezaten moduluaren ordu minimoak osatzeko.

Lanbidek diruz lagundutako prestakuntza-ekintzetan eta “in itinere” izan daitezkeen istripuei eta erantzukizun zibilarri lotutako ikasleen aseguruia Eusko Jaurlaritzak ikasle horientzat sinatutako polizaren bidez estaliko da, eta, horregatik, erakundeek ez dute aseguruia kontratatu behar.

2. PRESTAKUNTZA-MODULUEN BANANTZEA PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRI OSO BATEAN

Enpresa edo erakunde onuradunek, prestakuntza ematen hasi aurretik, Enplegurako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Prestakuntzaren zuzendariari profesionaltasun-ziurtagiri horren prestakuntza-moduluak banaka irakasteko baimena eskatzeko aukera izango dute. Baimena emanez gero, baldintza hauek bete behar dira:

- Banaka irakatsiko eta justifikatuko dira moduluak.
- Ahal dela, moduluak elkarren segidan emango dira, profesionaltasun-ziurtagirian ezartzen den ordenan.
- Profesionaltasun-ziurtagiriari ekiten dioten pertsona guztien partaidetza bermatu behar da, prestakuntza-ibilbidea osa dezaten.

Zeharkako prestakuntza-unitatea aurretik jaso duen prestakuntza-modulu batera sartzen denean parte-hartzaile bat, zentroak modulu hori egiaztatu ezingo duela jakinarazi beharko dio.

Bete gabeko plazak geratzen baldin badira, prestakuntza-moduluetan sartzeko baldintzak betetzen dituzten beste parte-hartzaile batzuk har ditzake prestakuntza-erakundeak.

Erakundearen betebeharra izango da praktikak eskaintzea modulu bat edo batzuk ikasten dituzten pertsoneri, baldin eta profesionaltasun-ziurtagiria amaitzen baldin badute modulu horiek.

3. ONARTUTAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZA: WEBGUNEAN ARGITARATZEA ETA ESKATZAILEEN AURREINSKRIPZIOA

Prestakuntza-ekintzak onartzen diren unean, horiei dagokien zerbitzuen eskaintza sortzen da espezialitateari buruzko datuekin: baldintzak eta edukiak.

Prestakuntza-ekintza onartu ondoren, prestakuntza-erakundeak balioudun 5 eguneko epean onartuko du diru-laguntza, LAN-F aplikazioaren bidez, eta prestakuntza-ekintzarako aurreikusitako diren data eguneratuak eman beharko ditu, bai eta "Oharrak" atalean islatu nahi dituen datuak eman ere (web-orrialdean argitaratuko da atal hori).

Diru-laguntza onartu ondoren, epe batzuk ezartzen dira balio lehenetsi moduan:

- Web-orrian argitaratzea aurreikusitako hasiera-data baino 60 egun lehenago.
- Eskatzaileen inskripzioa aurreikusitako hasiera-data baino 30 egun lehenagotik.

Epe horiek Lanbideko teknikariek alda ditzakete zentroen eskariz, LAN-F aplikazioan "Aldatu eskaintza" botoia sakatuta. Alda daiteke aurreinskripzioko plazen kopurua ere; kopuru hori, oro har, 60 pertsonakoa izaten da.

4. IKASTALDIAREN HASIERAKO KOMUNIKAZIOA: Irakasleak eta egutegia HASIERAKO DATUEN PANTALA LAN-F aplikazioan

Zentroak, gutxienez zazpi egun lehenago, "Ikastaroaren hasierako komunikazioa" bidali behar du, eta, horretarako, pantaila bete behar du, LAN-F aplikazioko jarraibideek adierazitako moduan.

Komeni da epe hori handiagoa izatea, baldin eta egoera hauetakoren bat gertatzen baldin bada, gestio gehiago egin beharra baitakarkie Lanbideko teknikariei:

- Zentroak ikasle gehiago eskatzen baldin baditu eta ez baldin badago ikasleen kopuru guztizko horretarako kreditatuta/inskribatuta.
- Irakasle bat edo gehiago baldin badaude kreditatu gabe.

4.1. Hasierako datuak

Honako dokumentazio hau azalduko da fitxa horretan:

4.1.1 V. eranskina: “Ebaluazioaren plangintza”

“Ebaluazioaren Plangintza” V. eranskina profesionaltasun-ziurtagiriko ikastaroetan. Txantilo hori LAN-F aplikaziotik jaits daiteke.

Tutore-prestatzaileek modulu eta, hala egokitzuz gero, prestakuntza-unitate bakoitzaren edo modulua osatzen ez duten unitateen ebaluazio sistematiko eta jarraitua egingo dute, ikasketaren emaitzak eta, horrenbestez, lanbide-gaitasunak lortu direla egiaztatzeko, urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren 14. artikuluan xedatutakoa betez.

*Ebaluazioa aurretiko plangintza batean oinarrituko da, V. eranskinean esandakoaren arabera, eta berekin ekarriko du **ebaluazio bat egitea ikasketa-prozesuan zehar**, eta beste ebaluazio bat egitea modulu bakoitzaren amaieran, eranskinean jasotako ebaluazio-irizpideak eta gaitasunak erreferentziatzen hartuta.*

- ***Ikasketa-prozesuan zeharreko ebaluazioa** zenbait metodo eta tresna batera erabiliz egingo da, eta, besteak beste, prestakuntza-prozesu horretan egindako lanen, jardueren eta proben balorazioa jaso ahal izango du.*
- *Prestakuntza-modulu bakoitza bukatzean, **amaierako ebaluazio-proba** bat aplikatuko da, teoriko-praktikoa, eta modulu horri lotutako gaitasun, ebaluazio-irizpide eta eduki guztiei buruzkoa. Modulu bat osatzen ez duten prestakuntza-unitateentzat programatzen baldin bada profesionaltasun-ziurtagirien prestakuntza, hari dagokion unitatearen edo dagozkion unitateen gaitasun eta ebaluazio-irizpide guztiak hartuko ditu kontuan amaierako ebaluazio-probak, prestakuntza-unitate bakoitzean lortutako emaitzak hautemateko moduan.*

Moduluen egutegiaren arabera ezarri behar dira ebaluazio-datak.

Ebaluazio-prozesuaren berri eman behar zaio ikasleari, bai eta lortzen ari den emaitzen berri ere, ikaskuntzaren ebaluazio-prozesuan bertan, nahiz azkeneko ebaluazioan.

4.1.2 V.I eranskina: “Prestakuntza-lanaren eta ebaluazioaren plangintza”

Teleprestakuntzaren modalitaterako.

Agiri honetan ikus daiteke zer egunetan egitekoak izango diren tutoretza presentzialak eta ikasle bakoitzaren amaierako ebaluazio-probak. Ezinbestean egin behar dira proba horiek elkartutako zentro edo ikastegi elkartuetan.

Lanbideko teknikariak LAN-F aplikazioan ikus dezake zer zentro elkartu baimendu dituen erakunde eta espezialitate bakoitzak: ⇒ Zentroen eta erakundeen erregistroa ⇒ Banakako gestioa ⇒ “Espezialitateak” fitxa. Fitxa horren barruan dago Plataformaren eta Jarraipenaren URLa.

4.1.3 Ebaluaziorako probak eta tresnak

Ikaskuntza-prozesuan eta moduluaren amaieran baliatzen dira, baita, bakarra baldin bada, prestakuntza-unitatearekin ere, profesionaltasun-ziurtagirien ekintzetan.

Nolanahi ere, ebaluatzeko metodoek eta tresnek ebaluazio-irizpideetan eta gaitasunetan bildutako ezagutza, trebetasun eta abilezien zer-nolakora egokitu behar dute, eta ebaluazioa objektiboa, fidagarria eta baliozkoa izango dela bermatu.

Ebaluazio-tresna bakoitzak bere zuzenketa- eta puntuazio-sistema izango du, non argi eta garbi zehaztuko baitira ikasleek lortutako emaitzak ebaluatzeko neurketa-irizpideak. (Urriaren 10eko ESS 1897/2013 Aginduaren 17. eta 18. artikulua).

V. eranskinean adierazitakoa bete behar dute.

Profesionaltasun-ziurtagirikoak ez diren ekintzetan, haietan parte hartuko dutenak ebaluatzeko egingo direnak izango dira.

4.1.4 Egutegi zehatza

Ekintza bakoitzaren egutegi zehatza egin behar da eta behar bezala zehaztuta erantsi behar da, pantailan mekanizatu diren datak eta orduak adierazita. Profesionaltasun-ziurtagiriek argi eta garbi adierazi behar dituzte moduluak zer egun eta orduetan irakatsiko diren.

Egutegiak, teleprestakuntzaren modalitatean, saio presentzialak adierazi behar ditu (tutoretzak eta ebaluazioak). Tutoretza-saioen eta ebaluazio presentzialen orduak adierazten dituzte urriaren 10eko ESS/1897/2013 Aginduaren I. eranskinak eta maiatzaren 9ko ESS/722/2016 Aginduaren eranskinak; horrez gainera, LAN-F aplikazioan ikus daitezke: ⇒ Zentro eta erakundearen erregistroa ⇒ Banakako gestioa ⇒ “Especialitateak” fitxa.

4.2. Datak eta ordutegiak

Prestakuntza-ekintza irakasteko egun eta ordu egiazkoak adierazi behar ditu egutegiak, eta deialdiak ezarritako mugen bitartekoak izan behar dute. Modalitatea teleprestakuntzakoa baldin bada, parte-hartzaileek plataformaren bidez izango duten arreta-ordutegia adierazi behar da.

Enplegu eta prestakuntzako teknikariak 6 irakastegunaren data eta % 25koa gehituko ditu hasierako komunikazioa balioztatu aurretik.

4.3. Ikasleak

Zentroak edo erakundeak diruz lagundu gabeko bi ikasle gehitu ditzake, gehienez. Edonola ere, ezin dute kreditatuta edo inskribatuta dituzten ikasleen kopururik gainditu.

Baldin zentroak espezialitate horretan inskribatuta edo akreditatuta dituen ikasleen kopurua baino handiagoa bada diruz lagundutako ikasleen eta bestelako ikasleen batura, ikasleen kopurua handitzeko eskatu beharko du zentroak; horretarako, dagokion prozedura erabiliko du - akreditazioko edo inskripzioko espezialitatearena-, eta, beharrezkoa baldin bada, gerta liteke Lanbideko teknikariek zentroa bisitatzeko ere.

4.4. Prestatzaileak eta tutoreak

Irakasle guztiak adieraziko dira, emango dituzten modulu zehatzekin. Profesionaltasun-ziurtagirirako ikastaroen kasuetan, tutoretzako batek, behintzat, kreditatuta egon behar du profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prestakuntza-moduluetako batean.

Gehienez ere bi prestatzailek irakatsi dezakete prestakuntza-modulu bakoitza modalitate presentzian.

Teleprestakuntzako modalitatean, tutore-prestatzaile bakoitzak 80 ikasle har ditzake gehienez ere, prestakuntza-ekintza asinkronoa baldin bada, eta 30 ikasle har ditzake gehienez, sinkronoa baldin bada haren iraupenaren % 50ean baino gehiagoan.

Irakasleak zentroko langileak izango dira, edo, bestela, zentroak zuzenean kontratatu dituen pertsona fisikoak. Ezin daiteke azpikontratatziorik egin (30/2015 Legearen 14. artikulua).

4.4.1 Prestatzaileen akreditazioa

LAN-F aplikazioak automatikoki egiaztatzen du prestatzaileen akreditazioa.

Pertsona horietakoren bat ez badago sartuta prestatzaileen fitxategian, gorri agertuko da, eta esteka bat izango da dokumentazio egokia eransteko “Irakasleak baimentzeko prozedura” jarraibideen arabera.

Hiru agiri erantsi behar dira hori egiteko:

1. **Titulua** (programak ezarrita daukana, edo profesionaltasun-ziurtagiriaren errege-dekretuak eskatzen duena), **eskaneatuta**

- Titulazioa eskatzen baldin bada, aurkezten den dokumentazioa ofiziala dela egiaztatu behar da.
- Atzerriko unibertsitate-titulazioak aurkezten baldin badira, Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioak homologatutakoak izan behar dute.

2. Irakatsiko den ziurtagiriari dagokion lanbidean osatu den **lanbide-esperientziaren ziurtapena**:

- Soldatapeko langileak baldin badira:

Enpresak emandako ziurtagiria, betetako lanpostua adierazten eta hari dagozkion lanak eta funtzioak azaltzen dituena. Lanbidek egiaztatuko ditu lan-bizitza eta kontratuak.

- Langile autonomoek edo norberaren konturako langileak baldin badira:

Baldintzak betetzearen zinpeko deklarazioa. Jarduera ekonomikoan egindako lan-bizitza egiaztatuko du Lanbidek.

- Borondatezko langileak edo bekadunak baldin badira:

Laguntza eman dioten erakundearen ziurtagiria. Bertan, hauek jasoko dira zehazki: egindako jarduerak eta funtzioak, horiek egin dituzten urtea eta eskaintako guztizko ordu-kopurua.

3. **Irakasteko gaitasunaren akreditazioa** (baldintza hauetakoren bat bete behar da):

- Azaroaren 18ko 1697/2011 Errege Dekretuak araututako enpleguari dagokion lanbide-heziketako irakaskuntzarako profesionaltasun-ziurtagiria.
- Lanbide-prestatzaile izatearen profesionaltasun-ziurtagiria.
- Gaitasun pedagogikoko ziurtagiria, espezializazio didaktikoko titulu profesionala edo kualifikazio pedagogikoaren ziurtagiria.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen lanbide arautuetan jarduteko gaikuntza dakarren unibertsitate-masterra.
- Eskatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren pareko prestakuntza-ikastaro baliokidea, irakaskuntza-lanerako baliokide izendatu den titulazioren bat duten pertsonak aurkeztu beharrekoa, baldin eta ezin baldin badituzte master-ikasketak egin. Azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuaren lehen xedapen gehigarriak arautzen duenari begiratuko zaio egoera horietan.
- Azken hamar urteetan gutxienez 600 irakastordu eman izana hezkuntza-sistemaren enplegurako lanbide-heziketaren prestakuntza-ekintzak irakasten, modalitate presentzialean.
- Pedagogiako, psikopedagogiako edo maisu/maistrako lizentziaturako unibertsitate-titulu ofizialak, graduoko unibertsitate-tituluak psikologiaren edo pedagogiaren alorretan, edo graduondoko unibertsitate-titulu ofizialak alor horietan.

Horrez gainera, honako hau izan behar dugu kontuan:

- Curriculum vitaeak ez dauka prestatzaileak baimentzeko akreditazio-baliorik eta, hortaz, ez da igo behar Prestatzaileen Fitxategira. Erakundeak enplegu eta prestakuntzako teknikariari bidal diezaioke posta elektronikoz, prestakuntzaren eta lanbide-esperientziaren edo irakasle-esperientziaren berri emateko, baina ez da sartu behar Prestatzaileen Fitxategian.
- Homologatuta ez dauden atzerriko titulazioak onar daitezke, lanbide-ziurtagiria eskuratzeraz bideratuta ez dauden hizkuntza-espezialitateak irakatsi behar dituzten irakasle natiboak baimentzeko.
- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak edo autonomia-erkidegoetan prestatzaileen alorrean eskudun diren organoek emandako agiri ofizialak, ziurtatzen dutenak pertsona batek bete egiten dituela dagokion errege-dekretuak profesionaltasun-ziurtagiria (prestakuntzako moduluena edo unitateena) eskuratzeko prestakuntza-espezialitate bat (bai osorik, bai haren zati bat eta horiek irakasteko modalitate guztietan, bai presentziala, bai teleprestakuntzakoa)

irakasteko arautzen dituen baldintzak. Pertsonal irakaslea baimentzeko egiaztagiri moduan onartuko dira agiri horiek.

- Kontratatzeko konpromisoa dakarten eta profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko xederik ez duten prestakuntza-ekintzetan ez da beharrezkoa izango Lanbidek langile prestatzaileak baimentzea, baldin eta enpresek irakatsi behar baldin badituzte, zuzenean, ekintza horiek. Ez zaie altarik emango irakasle horiei Lanbideren prestatzaileen fitxategian.

4.4.2 Prestatzaileen akreditazioa teleprestakuntzako modalitatean

- Teleprestakuntzaren bidezko prestakuntza ematen duten tutore-prestatzaileek ezinbesteko dute profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituzten errege-dekretuek modalitate presentzialean irakasteko arautzen dituzten baldintzak betetzea, eta, horrez gainera, egiaztatu behar dute gutxienez 30 orduko prestakuntza dutela teleprestakuntzako modalitatean edo 60 orduko lanbide-esperientzia dutela modalitate horretan eta IKTen (informazioaren eta komunikazioaren teknologien) erabileran.

Lanbideko teknikariek “Ikastaldiaren hasierako komunikazioa” egiaztatuko dute, eta programazio-datuak eta kreditatutako irakasle guztiak zuzenak direla begiratuko dute.

Baimena LAN-F aplikazioaren bidez emango da. Datuetan inkoherentziaren bat dagoela edo dokumentazioa nahikoa ez dela ikusiz gero, behar dena egiteko adieraziko dio zentroari “Zuzentzeko eskatzea” botoiaren bidez.

Prestakuntza emango duen erakundeak behar adina alditan alda dezake hasierako komunikazioa, hau baliatuta: **“Aldatu hasierako komunikazioa”**. Lanbidek baliozkotu behar ditu aldaketa guztiak.

Oharra: Finantzatutako ekintza arruntetan, ikastaroaren hasierako, bidalketako eta hasierako komunikazioa balioztatzeko prozesua geldiaraziko dute behean adierazten diren alarmek:

- Fitxategian jaso gabeko espezialitatea izatea.
- Modalitate horretarako erregistratu gabe dagoen modalitatea izatea.
- Guztizko ikasleen kopurua zentrorra inskribatutako/kreditatutako gehienekoa gainditzea (0).

Kontratatzeko konpromisoa duten ekintzetan, EZ dira kontuan hartu behar. Ohartarazpen horiek azaldu arren, ekintza kudeatzeko aukera ematen du aplikazioak.

EZIN DA PRESTAKUNTZA-EKINTZARIK ABIATU ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZAKO TEKNIKARIAK HASIERAKO KOMUNIKAZIOA BALIOZTATU EZ BALDIN BADU.

5. ESKABIDEAK JASOTZEA ETA HAUTAKETA-PROZESUA

“PARTE-HARTZAILEAK HAUTATZEA” LAN-F aplikazioan

Deialdi honen babesean diruz lagundutako prestakuntza-ekintzetan parte hartu ahalko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo Gazte Bermerako Sistema Nazionalaren Fitxategian izena emanda duten langabeek. Beste Enplegu Zerbitzu Publiko autonomikoren batean izena emandako langabeek ere parte hartu ahalko dute.

Horretarako, langabetzat joko dira lanaldi partzian diharduten langileak ere, baldin eta haien lanaldia antzeko lana duen langile baten lanaldi osoaren heren bat baino txikiagoa bada (deialdiaren 4. artikulua araberan).

5.1. Eskabideak jasotzea

Eskatzaile bakoitzak gehienez ere hiru eskabide egin ditzake.

Hautagaiek honela parte har dezakete ikastaroan:

- Ikastaroan parte hartzea eskatuz, bai Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren sareko bulegoren batean eskaera bat

aurkeztuta, bai eskaera organismo autonomo honen webgunean beteta (www.lanbide.euskadi.eus). Prestakuntza-ekintzak, haietan izena emateko epea eta eskatzaileek bete behar dituzten sarbide-baldintzak adieraziko dira webgunean, bai eta prestakuntza-ekintza bakoitzaren xehetasunak eta ezaugarriak ere.

- Enplegu-eskatzaile (eta DSBEren hartzaile) izanda, baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko orientazio-zerbitzuek ikastaroa egiteko agindu baldin badio bere prestakuntza-ibilbidearen barruan.
- Lanbidek enplegu-eskatzaileak deitu ditzake beraien prestakuntza-kontutik abiatuta, profesionaltasun-ziurtagiri bat osatzeko faltan dituzten prestakuntza-moduluez osatutako prestakuntza-ekintza bat egiteko.

Errore baten ondorioz, eskaera bat egin dutenek, hura baliogabetzeko aukera izango dute Nire lanbidenet erabilita edo Lanbideko edozein bulegotan, prestakuntza-ekintzaren kudeatzaile ez izan arren. Eskatzaileak eskatu behar du baliogabetzea.

Hautaketa-probatetik kanpo geratutakoak eta prestakuntza-ekintzan onartu gabeak izango dira beste eskaera bat egiteko aukera izango duten bakarrak.

Prestakuntza-ekintza hasiz gero, eskatzaileek ezin dute hura utzi, beste ikastaro batean sartzeko.

Ikasleek ezingo dute aldi berean bi prestakuntza-ekintzetan parte hartu, salbu eta ez baldin badago ikastaroa egiteko baldintzak betetzen dituen beste inor.

Nolanahi ere, gehieneko bertaratze-denbora 8 ordukoa izango da.

Lan eta egoitzako baimenik gabeko pertsonak prestakuntza-ekintza egiaztagarrietan parte har dezakete, Euskadin prestakuntza egiaztagarria antolatzeko jarraibideetan arautzen dena beteta. Profesionaltasun-ziurtagiria egiteko sarbide-baldintzak bete behar dituzte parte-hartzaile horiek, eta, ekintza amaitzen dutenean, egiaztapen-diploma bat jasoko dute, baina ezingo dute profesionaltasun-ziurtagiria eskatu, harik eta beren egoera erregularizatzen ez duten arte.

5.2. Parte-hartzaileak aukeratzeko pantaila LAN-F aplikazioan

Aurretiko izen-ematea amaitu ondoren, prestakuntza-zentroak aurrez matrikulatuen Excel-a jaitsiko du LAN-F aplikazioko "Parte-hartzaileen hautaketa" aukeratik (ezkerreko menua).

Aurrez zehaztutako egunean deituko zaie eta erabakitako hautaprobak aplikatuko dizkie.

Exceleko lehen fitxan dauden jarraibideak kontuan hartuta beteko du Excela, eta LAN-F aplikazioan kargatuko du, dagokion botoian. Matrikulatutako pertsonak agertuko dira Excel horretan, erreserbak eta zentroak erabakitako ordena ere.

Urrats hori egin ondoren, baliatu diren "Hautaketarako probak eta tresnak" erantsiko dira LAN-F aplikazioko atal egokian, zuzenketa- eta puntuazio-irizpide egokiekin batera (deialdiaren 10.3 artikulua), eta hautaketa bidaliko da, prestakuntza-teknikariak baliozta dezan.

5.3. Eskatzaileek bete behar dituzten baldintzak

5.3.1 Profesionaltasun-ziurtagirietan

Prestakuntza-erakundeak honako baldintza hauetakoren bat egiaztatuta aukeratuko ditu ikasleak:

- **1. mailako profesionaltasun-ziurtagirientzat:**

- Gaztelaniaz irakurri eta idazteko oinarriak izatea.

- **2. mailako profesionaltasun-ziurtagirientzat:**

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo baliokidea izatea.

Hezkuntza sistemen eta tituluen baliokidetasunak ondorengo loturan ikusgai:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dif9/es_5494/adjuntos/cuadro_equivalencias_titulos_estudios_c.pdf

Herrialdeak eta baliokidetasun taulak:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif9/es_5494/adjuntos/homologacion/paises_c.pdf

(Atzerriko hezkuntza sistemetan egondako aldaketengatik, egindako ikasketek eta tauletan agertzen diren datuek bat egiten ez dutenean, herrialde horrek ziurtatzen duen baliokidetasuna aintzat hartuko da).

- Egin nahi den prestakuntza-moduluaren edota profesionaltasun-ziurtagiriaren maila bereko profesionaltasun-ziurtagiriaren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiri bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo hezkuntza-administrazioek araututako erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik edota 45 urtetik gorakoak unibertsitatera sartzeko proba gaindituta edukitzea.
- Profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prestakuntza egokia etekina ateraz egiteko behar diren funtsezko gaitasunak izatea, 34. Errege Dekretuaren IV. eranskinean jasotakoaren arabera. Baldintza honen egiaztapena ondorengo bideen bitartez egin daiteke:
 - a. Lan-administrazio eskudunak egindako matematikarako eta gaztelaniazko oinarriko gaitasun idatzizko-probak gainditzea (**2018/2020ko deialdian prestakuntza-entitateek egingo dute**).

Atzerriko hizkuntza baten modulua gehitzen den kasuetan, atzerriko hizkuntzaren komunikaziorako gaitasun proba eskatuko da, dagokion mailan.
 - b. Lan-esperientzia edo lotura duen prestakuntzaren justifikazioa, lan-esperientziaren bidez hartutako lanbide-gaitasunak egiaztatzeari buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak arautzen duenaren arabera egingo da (3 urtekoa, azken 10 urtetan gutxienez 2000 lan-ordu izanda).
 - c. Ikasi nahi den prestakuntzaren familia eta lanbide-eremu berdinean gaitasun atal bat edukitzea. Gaitasun-atl hori ikasi nahi denaren maila berdina edo handiagokoa izanda eta lan-esperientziaren bidez hartutako lanbide-gaitasunetan jasota egongo delarik.

- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagirientzat:

- Batxilergoko titulua edo baliokidea izatea:

Hezkuntza sistemen eta tituluen baliokidetasunak ondorengo loturan ikusgai:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/es/contenidos/informacion/dif9/es_5494/adjuntos/cuadro_equivalencias_titulos_estudios_c.pdf

Herrialdeak eta baliokidetasun taulak:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dif9/es_5494/adjuntos/homologacion/paises_c.pdf

(Atzerriko hezkuntza sistemetan egondako aldaketengatik, egindako ikasketek eta tauletan agertzen diren datuek bat egiten ez dutenean, herrialde horrek ziurtatzen duen baliokidetasuna aintzat hartuko da).

- Egin nahi den prestakuntza-moduluaren edota profesionaltasun-ziurtagiriaren maila bereko profesionaltasun-ziurtagiriaren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiri bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo hezkuntza-administrazioek araututako sarbide-probak gainditu izana.

- 25 urtetik edota 45 urtetik gorakoak unibertsitatera sartzeko proba gaindituta edukitzea.
- Profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prestakuntza egokia etekina ateraz egiteko behar diren funtsezko gaitasunak izatea, 34. Errege Dekretuaren IV. eranskinean jasotakoaren arabera. Baldintza honen egiaztapena ondorengo bideen bitartez egin daiteke:
 - a. Lan-administrazio eskudunak egindako matematikarako eta gaztelaniazko oinarriko gaitasun idatzizko-probak gainditzea (**2018/2020ko deialdian prestakuntza-entitateek egingo dute**).

Atzerriko hizkuntza baten modulua gehitzen den kasuetan, atzerriko hizkuntzaren komunikaziorako gaitasun proba eskatuko da, dagokion mailan.
 - b. Lan-esperientzia edo lotura duen prestakuntzaren justifikazioa, lan-esperientiaren bidez hartutako lanbide-gaitasunak egiaztatzeari buruzko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak arautzen duenaren arabera egingo da (3 urtekoa, azken 10 urtetan gutxienez 2000 lan-ordu izanda).
 - c. Ikasi nahi den prestakuntzaren familia eta lanbide-eremu berdinean gaitasun atal bat edukitzea. Gaitasun-atal hori ikasi nahi denaren maila berdina edo handiagokoa izanda eta lan-esperientiaren bidez hartutako lanbide-gaitasunetan jasota egongo delarik.

Atal honetarako beharrezko dokumentazioa prestakuntza-zentroak/erakundeak gordeko du.

5.3.2 Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko aukerarik ematen ez duten prestakuntza-ekintzetan

Prestakuntza-erakundeak hautatu behar ditu ikasleak, prestakuntza-espezialitate bakoitzeko programa osatzen duten eskakizunak egiaztatu ondoren.

5.4. Lehentasunak ikasleen hautaketan

Kurtsoetan parte hartuko duten ikasleak zein izango diren enpresa edo erakunde onuradunak berak erabakiko du, Lanbide bidalitako hautagaien zerrendatik. Horretarako, kurtsoa emango duen erakundeak aukera izango du LAN-F aplikaziotik izena emanda zein dauden ikusteko: hortik hautatuko ditu ikasleak, prestakuntza-ekintzak hasi aurretik, nahiko tarte utzita, eta ezinbesteko garantia guztiak errespetatuz.

Beharrezkoa duten prestakuntza-ekintza guztietan, hautaketa-proba bat ere egingo dute zentroek, egoitzan bertan, Lanbideko teknikariekin aurrez adostuta, ikasleek ekintza behar bezala aprobetxatuko dutela ziurtatzeko eta ikusteko kualifikazio-ekintzetako helburuak lortzekotan aurretik izan behar duten jakintza ba ote duten. Proba hori LAN-F aplikazioan dagokion atalari erantsiko zaio (deialdiaren 10.3 artikulua arabera).

Hautaprobea hori egin eta gero, eta etengabeko prestakuntza bultzatu aldera, honela jokatuko da prestakuntza-ekintzetarako parte-hartzaileak hautatzeko:

- Profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prestakuntza-ibilbideak.

1. Profesionaltasun-ziurtagiri oso bat ematen bada, prestakuntza-modulurik egiaztatuta ez dutenek bakarrik hartu ahal izango dute parte (deialdiaren 10.4 artikulua). Hala ere, enplegu- eta prestakuntza-ibilbideei nahiz langabetuen eta langileen garapen profesionalari eta pertsonalari bide emateko, eta Lanbideko teknikariaren baimena jaso ondoren, prestakuntza-ekintzara sartzera baimenduko da, egiaztatutako prestakuntza-modulua zeharkakoa bada eta profesionaltasun-ziurtagiriak bere prestakuntza-ibilbidea jarraitzen badu, familia eta arlo berekoa izanik.

2. Profesionaltasun-ziurtagiri modulatu bat programatzen denean, 6.4 artikulua arabera, profesionaltasun-ziurtagiria osatzen duten prestakuntza-ekintzen multzoaren berri emango du Lanbidek, zerbitzu-eskaintza bakarraren bidez, eta ibilbide osoa osatzen duten prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko izangaien poltsa eratuko du. Prestakuntza-ekintzan inskribatzeko epea itxita dagoenean, ziurtagiria osatzen duten moduluen prestakuntza-ekintzetan multzokatuko dira izangaiak, bakoitzaren prestakuntza-kontua kontsultatu ondoren. Parte-hartzaileak prestakuntza-ekintzetarako hautatzeko, honela jardungo da:

– *Profesionaltasun-ziurtagiriaren lehenengo moduluari dagokion lehenengo prestakuntza-ekintzan, egiaztapenik ez duten pertsonen ehunekoak % 50ekoa izango da gutxienez. Profesionaltasun-ziurtagirian moduluren bat egiaztatuta duten pertsonekin osatuko da gainerakoa, eta lehenengo prestakuntza-ekintza hori bakarrik falta zaienei emango zaie lehentasuna. Bi kategorietako batean izangai nahikorik ez badago, parte-hartzaileen ezaugarrietan oinarrituta aldatu ahalko da ehuneko hori, taldea osatu arte.*

– *Gainerako prestakuntza-ekintzetan, aurreko berehalako modulua amaitu duten eta prestakuntza-ekintza egin nahi duten pertsonak edukiko dute lehentasuna. Bigarrenik, ekintza jasotzen duen modulua bakarrik falta zaienei emango zaie lehentasuna, ibilbidea amaitu eta profesionaltasun-ziurtagiria lortu ahal izan dezaten. Eta, hirugarrenik, egiaztapen-kopuruaren arabera lehentasuna ezarriko da besteentzat, profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko hurbilen daudenak lehenetsiz.*

3. Prestakuntza-modulu solteak programatu badira, egiaztatutako prestakuntza-moduluren bat duten pertsonak izango dute lehentasuna, beren prestakuntza-ibilbidea osa dezaten. Kasu horretan, lehentasuna izango dute profesionaltasun-ziurtagiriko gainerako moduluak gaindituta dituzten pertsonak. Ibilbide oso bati dagozkion prestakuntza-ekintzen kasuan, lehen ekintzan parte hartu duten pertsonak lehentasuna izango dute ibilbide horretako ondorengo faseetan parte hartzeko (deialdiaren 10.4 artikulua).

Prestakuntza-ekintza programatzen bada laneko esperientziaren eta/edo prestakuntza ez-formalaren bidez Konpetentziak Aitortzeko Dispositiboaren deialdi bateko Aholkularitza edo Ebaluazio fasean detektatutako prestakuntza dela-eta, prestakuntza-premia hori identifikatu eta preskribatu zaienek lehentasuna izango dute prestakuntza-ekintzan parte hartzeko.

Nahikoa emakume aritzen ez diren jarduera-arloei lotutako profesionaltasun-ziurtagirietan, lehentasuna izango dute emakumeek.

Prestakuntza-ekintzara sartzeko eskakizunak betetzen dituzten eta, aurreko atalean deskribatu bezala, dagokien hautaprobea gainditzen dutenen artean, kolektiboaren arabera lehentasun batzuk ezarri dira, lehentasun-hurrenkera honetan:

- Lehenik eta behin, eta lehentasun-maila berberarekin, lan-merkatuan sartzeko arazo bereziak dituzten pertsonak, kualifikazio-maila txikia duten pertsonak lehentasuna izanik: 30 urte arteko gazteak; emakumeak, langabeen kolektiboan duten pisuaren proportzioan (langabeen % 53 emakumeak dira); luzaroko langabeak; 45 urtetik gorakoak; desgaitasuna duten pertsonak; langabezia-saria agortua duten eta berriz profesionalki gaitzeko PREPARA programan eta Enplegua Aktibatze Programan parte hartzeagatik diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsonak; Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun diren langabeak; eta terrorismoaren eta genero-indarkeriaren biktimak.
- Bigarrenik, gainerako langabeak, orokorrean.
- Hirugarrenik, suspentsioko EREaren men dauden langabetuak, prestakuntza-ekintzara joateko.

Zentroak LAN-F aplikazioaren bidez hautaketaren emaitza bidali duenean, Lanbideko teknikariek egiaztatuko dute erabakitako irizpide eta lehentasunen arabera egin dela, eta parte-hartzaileak balioztatuko dituzte.

Zentroak onuradunek beren egoitzetan jarri beharko dute hautatutako hautagaien zerrenda eta oraingoz erreserban geratu direnena, prestakuntza-ekintzak hasi baino 24 ordu lehenago eta interesdunei aurretik esandako lekuan. Horrekin batera, prestakuntza-ekintzak non, noiz eta zer ordutan egingo diren adierazi behar dute. Horiek esanda ere, prestakuntza-zentroek aukera izango dute ikasleei prestakuntzan parte hartuko dutela adierazteko bestelako bitarteko batzuk ere erabiltzeko (deialdiaren 10.8 artikulua).

Prestakuntza-teknikari espezialistek izango dute prestakuntza-erakundeek egindako hautaketa 2017an egiaztatzeko azken erantzukizuna.

6. IKASTAROAREN HASIERAN

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA LAN-F APLIKAZIOAN

Prestakuntza-ekintza bat hasi ahal izateko, Lanbideko teknikariek balioztatu behar dituzte bai parte-hartu behar duten pertsonak, bai ikastaldiaren hasierako komunikazioa.

Lanbideko teknikariek EZIN dute prestakuntza-ekintza baten “Hasiera egiaztatu”, baldin eta aurrez bisitatu ez baldin badute.

Deialdiaren 15. artikulua araber, Lanbideko teknikariak **bisita** bat egingo du prestakuntza-ekintzaren **hasieran**: *“Bisita horretan, prestakuntza-ekintza ematen duen zentroaren baldintzak eta Lanbideren finantzaketatik eta Europako Gizarte Funtzaren baterako finantzaketatik eratorritako komunikazioa betetzen den egiaztatuko du teknikariak, eta ikastaroari eta horren edukiei nahiz garapenari buruzko datu guztien berri emango die ikasleei, bai eta beren eskubideen eta betebeharren berri eman ere, eta zalantzei eta galderei erantzunoko die”.*

- 34. Errege Dekretuaren 12. artikuluan adierazten diren puntuak egiaztatuko ditu.
 - Profesionaltasun-ziurtagiriei dagozkien prestakuntza-ekintzak ematen dituzten zentroek ziurtagiri horiek arautzen dituzten errege-dekretuetan zehaztutako baldintzak bete behar dituzte. Enplegu-zerbitzu publikoek, zentro horietarako prestakuntza-ekintzak izanez gero, urtero egiaztatuko dituzte egindako egiaztapenak, eta egiaztatze horretarako ezarritako baldintzak betetzen diren aztertuko dute.
 - Profesionaltasun-ziurtagiria bertaratzeko modalitatean lortzeko prestakuntza ematen duten zentroek bete egin behar dituzte profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza-modulu guztietarako erabakitako gutxienezko leku-, instalazio- eta ekipamendu-baldintzak eta prestatzaileen preskripzioak.
- Irakurri eta ikasleei eman egingo zaie “Eskubideak eta betebeharrak” dokumentua, eta behar diren azalpen guztiak emango dira, ikasle guztiak informazio egokia izan dezaten. Prozedura hori lehen aipatutako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 2016ko ekainaren 15ean emandako Ebazpenaren 10. eta 11. artikuluen araber egingo da. Ikasleek sinatuta aurkeztu behar dute II. eranskineko ereduak, zeina zentroak LAN-F aplikaziotik jaits baitezake, eta ikasleen eskubide eta betebeharrak buruzko dokumentua hartu izana eta berorrek ados dagoela adierazi. Dokumentu horretan, halaber, ikasleek baimena ematen diote Lanbideri, egin beharreko prestakuntzaren bidez gauditutako prestakuntza-moduluei dagozkien egiaztapen partzial metagarriak egin ditzan.

Dokumentu hori ikasle guztiak bete ondoren, zentroak LAN-F aplikazioan erantsiko du, “Bertaratzearen kontrola eta ebaluazioa” fitxako leku egokian.

- Ikasleei esango zaie ez dutela eguneratu behar Lanbiden egiten duten eskaria prestakuntza-ekintzak irauten bitartean, eta hura etenda dagoela bitartekaritzarekin prestakuntza amaitu arte.
- LAN-F aplikazioan agertzen diren pertsona hautatuek ikastaroan parte hartzen dutela egiaztatuko du. Parte-hartzen duten pertsonaren batek utzi egiten baldin badu ikastaroa, hura ordeztzeko aukera izango da:
 - Profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko ekintzetan: lehen bost irakastegunetan.
 - Gainerako ekintzetan: prestakuntza-ekintzaren iraupenaren % 25era iritsi baino lehen.
- Prestakuntza-zentroak, ikastaroaren hasieran, gutxienez honako hauek eman behar dizkie prestakuntza-ekintzan parte hartu behar dutenei (deialdiaren 11.3 eta 13.7 artikulua):
 - Ikastaroaren egutegia eta prestakuntza-ekintzaren programa.
 - Espezialitatearen eduki guztiak jasoko dituen eskuliburu bat, argitaratuta edo euskarri informatikoan.
 - Ikastaroa ondo garatzeko behar den idazmahaiko materiala.
 - Behar diren babes-elementuak.

- Material didaktikoetan eta sortuko den bestelako dokumentazioan, prestakuntza-zentroek berariaz jarri beharko dute Europako Gizarte Funtzak kofinantzatutakoak direla.

Enplegu eta prestakuntzako teknikariak bi aletan beteko du “Prestakuntza-ekintzaren hasierako bisita” izeneko dokumentua, eta teknikariak eta prestakuntza-zentroak izenpetzen dutenean, kopia bat erantsiko da LAN-F aplikazioan (“Bulego kudeatzailearen jarraipena” botoia) eta prestakuntza-zentroari entregatuko zaio beste kopia.

7. BERTARATZEAREN KONTROLA ETA EBALUAZIOA

“JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA” LAN-F aplikazioan

Prestakuntza-ekintza benetan hasi dela egiaztatu ondoren, eta parte-hartzaileak nahiz hasierako komunikazioa ere aurrez balioztatuta, Lanbideko teknikariek **Hasiera Egiaztatzea sakatuko dute LAN-F aplikazioko check egokian**.

7.1. Jarraipena

- Ikasleen bajak eta altak: zentro laguntzaileak, aplikazioaren bidez, unean-unean jasoko ditu ikasleen bajak gertatzen direnean. Ikasle berriak sartzeko aldiaren barruan egonez gero, lehen “Erreserba” egoeran zen lehen izangaia, “Matrikulatuta” egoerara aldatuko da, eta segurtatu beharko dute bajaren ondoren berriro sartzen direnek behar adinako ezagutza daukatela prestakuntza-ekintza amaitu arte probetxuz jarraitzeko, eta modulu guztiak osatzeko gai direla Profesionaltasun Ziurtagiriak direnean.

- Sinaduren kontrola: egunero, sinadura-orria erabiliko da, eta aplikaziora eramango, astea amaitu ondoren.

Sinaduren kontrola prestakuntza-moduluaren arabera bereiziko da profesionaltasun-ziurtagirietan.

Modalitatea teleprestakuntzako baldin bada, “Jarraipen-txostenak” gaineratu behar ditu erakundeak atal horretan, teleprestakuntzako plataformatik deskargatu ondoren. Urriaren 10eko ESS/1897/2013 Aginduaren II. eranskinean arautzen diren baldintzak bete behar dituzte jarraipen-txostenek.

- Ikasleak baztertzea: Prozedura hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 2016ko ekainaren 15ean emandako Ebazpenaren 11.2 artikulua arabera egongo da.

Parte-hartzaileak baztertzeko arrazoi izango dira:

- Prestakuntza-ekintzaren iraupen osoaren % 25ean ez-bertaratzea ekintzara, horretarako arrazoa justifikatuta dagoen ala ez begiratu gabe.
 - Ekintzatik etekinik ez ateratzea, edo ekintza behar bezala egitea eragozten duen jokabide desegokia izatea, osasun-eta higiene-arauak ere kontuan hartuta.
- Honako hau izango da ikasleak baztertzeko prozedura: (EBAZPENEA, 2015eko apirilaren 15ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntza-ekintzak egiten dituzten ikasleak baztertzeko prozedura onartzen duena).

III Eranskinean jasota datozen baztertzeko arrazoiren bat aplikatzen bazaio, prestakuntza-zentroak adierazi egin beharko dio Lanbideri (agiriari sarrera-erregistroa egin behar zaio). Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kausa hori hauteman ondoren, Enplegurako Prestakuntzako eta Diru Sarrerak Bermatzeko zuzendariak kanporatze-prozedura hasteko akordioa egingo du. Akordio horretan, baztertzeko proposamena arrazoitzeko egitate edo gertakariak adieraziko dira, eta ikasleak bost egun natural izango ditu alegazioak aurkezteko. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak hamabost eguneko gehieneko epean ebatzi behar du prozedura. Egoerak horrela eskatzen baldin badu, kanporaketa hasteko erabakian behin-behineko neurriak har daitezke prestakuntza-jarduera behar bezala egingo dela bermatzeko, hala nola ikaslea aldi baterako ikastarotik kanporatzea erabakia jakinarazteko egunetik prozedura ebatzen den arteko egunetan. Errekurtso-bideak adieraziko dira ematen den ebazpenean.

Asteren batean ikasleren batek ez badu parte hartzen prestakuntza-ekintzak irauten duen ordu guztien % 25ean baino gehiagoan, prestakuntza-zentroak berariaz emango dio horren berri Lanbideko teknikariari, ikasleari baja emateko. Oraindik modulu oso bat egiteko badago, eta % 25etik gorako ez-bertaratzea arrazoi justifikatu baten ondorioa bada

(adibidez, gaixotasun batena edo lan-jarduera hastearrena), pertsonak falta den modulua egiteko aukera azter daiteke, kontuan hartuta ikasle hori ezingo dela justifikatuztat hartu prestakuntza-ekintzaren likidazioan.

Ikasleren batek utzi egiten baldin badio prestakuntza-ekintzara joateari edo ez-bertaratzeen % 25a gainditzen baldin badu, zentroak egoera horren berri emango dio Lanbideri, eta ofizioz emango zaio baja, baztertze-prozedura erabili beharrik izan gabe.

- Ikasleen justifikatu gabeko intzidentzien trataera:

Justifikatu gabeko jokabideak izateagatik baztertzen baldin badira ikasleak, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeaketa-arloari eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinaraziko zaizkio jokabideak, horiei dagozkien ondorenak izan ditzaten pertsona horiek jasotzen ari diren prestazioetan. Honako arau hauek zehazten dituzte ondoren horiek: 1/1994, ekainaren 20koa, Gizarte Segurantzako Legearen testuategina onartzekoa; 5/2000 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Lan arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko Legearen testuategina onartzekoa; 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25koa, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa; eta 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta kudeatzeko arloarekin komunikazioa izateko prozedura hau izango da: pertsona kanporatzeko erabakia eman ondoren, hurrengo hiru eguneko epean, prestakuntza-arloak DSBE arloari emango dio horren berri, zer egin azter dezan. Baztertze-erabakia batera, III. eranskina igorriko da, bai eta, halakorik baldin bada, espedienteko gainerako frogagiri ere.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoarekin komunikatzeko prozedura Lanbidek eta zerbitzu horrek ondorio horietarako erabakitakoa izango da, bai Enplegu Zerbitzu Publikoen Informazio Sistemaren esparru komunean, bai bi administrazioen artean sinatutako akordioen barruan.

7.1.1 Txostena eta jarraipen-inkestak

Hau adierazten du deialdiaren 15. artikulua:

Prestakuntza ematen duen zentroak Lanbidera bidali behar ditu, ikastaroaren lehenengo hilabetea bukatu baino lehen:

- Ikastaroaren funtzionamenduari buruzko txostena, homologazio-baldintzak eta ikastaroaren hasierako komunikazioan adierazitakoa betetzen direla egiaztatzen dituen.
- Ikasleek betetako kalitate-inkestak, haiek egindako oharrekin batera.

Dokumentu horiek LAN-F aplikaziora igo behar dira, Hasierako datuak fitxako Gestioko beste agiri batzuk atalean.

7.1.2. Zentrotik kanpoko jarduerak

Zentrotik kanpo jardueraren bat egin behar baldin bada ikastaroa behar bezala egiteko, zentroak baimena eskatuko dio Lanbideri idazki baten bidez, eta idazki hori LANF aplikazioan jarriko da, "Gestioko beste agiri batzuk" edukiontzian.

Lanbideko teknikariek atal horren beraren bidez baimenduko dute, egoki baldin bada, eskatutako irteera.

7.2. Gaindituta dauden prestakuntza-modulu edo -unitate egiaztagarriak ikastetik salbuestea.

Prestakuntza-modulu edo -unitateren bat gainditu baldin badu prestakuntza-ekintzetako parte-hartzailearen batek, horrela jasoko da bere prestakuntza-kontuan eta hemen adieraziko du LAN-F aplikazioak:

- Hautaketako Excelaren Bikoiztasunak zutabeetan.
- Interes-adierazpeneko fitxetan eta Parte-hartzaileen hautaketako fitxan.
- Ondoren, Jarraipenaren kontroleko eta ebaluazioko fitxan.

Eskatzaile horiek ez dute gainditua duten ikastaroko edukiak ikastera joan beharrik.

Ez baldin bada horrelakorik adierazten bere prestakuntza-kontuan, eskatzaileak Lanbideko erregistroan aurkeztu behar du, **prestakuntza-ekintza hasi baino gutxienez 20 egun lehenago**, egiaztapen partzial metagarriaren eskaera, prestakuntza-modulu hori gaindituta edo baliozkotuta izatearen egiaztagiriekin batera.

Egiaztapen partzial metagarriaren eskaera hori Lanbideko zerbitzu zentraletara bidaliko da, argi eta garbi “SALBUESPENA” mezua adierazita, al bait lasterren tramitatzeko. Salbuespena onartzen denean, prestakuntza-kontura eramango dira datuak.

Ez dute prestakuntza-ekintzara joatetik salbuetsiko aurrez adierazitako epe horretatik kanpo aurkezten diren eskaerak.

7.3. Ikastaroaren amaiera

Deialdiaren 15. artikulua araberak, Lanbideko teknikariak **bisita** bat egingo du prestakuntza-ekintzaren **amaieran**: *“Bisita horretan, prestakuntza-ekintza ematen duen zentroaren baldintzak egiaztatutako ditu teknikariak, baita Lanbideren finantzaketatik eta Europako Gizarte Funtzaren baterako finantzaketatik eratorritako komunikazioa betetzen den egiaztatuko ere; bestetik, amaierako inkesta betetzea eta ikastaroaren balorazio orokorra ematea eskatuko die ikasleei. Jasotako prestakuntzak eskaintzen dizkien aukeren inguruan orientatuko ditu ikasleak, eta une horretan eskain daitezkeen prestakuntza-bideen nahiz beste prestakuntza- edo enplegu-ekintza egokiago batzuen berri emango die, lan-merkatura hobetu sartu ahal izan daitezen”.*

- Bestalde, azken bisitan, ikasleei esango zaie betetzeko Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenean eskaintza osatzeko ekimenaren barruan jasotako “Prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko galdetegi”, Lanbidetik bidaliko zaien loturaren bidez.

Galdetegi hori jada ez da beteko bertaratuta, prestakuntza-zentroak betetzen duen hautaketako Excelean adierazi zen e-postaren bidez ikasleei igorritako loturaren bidez baizik. E-postako helbide hori zuzena ez baldin bada edo, arrazoiak arrazoi, jaso ez bada, berriro bidal edo bidera daiteke beste e-postako mezu baten bidez, LAN-F aplikazioko “Jarraipena eta Ebaluazioa” pantailan dauden botoien bidez. Zentroak berak eta Lanbidekin egin dezakete.

Lanbideko zentroek eta teknikariek behar den laguntza material osoa emango diete ikasleei, bai laguntza materiala (ordenagailuak baliatzeko aukera, etab.), bai giza laguntza (behar diren azalpenak, argibideak, etab.). Inkesten % 80 bete behar dira gutxienez, zentroak amaierako ebaluazio-akta formalizatu ahal izateko, eta diplomak edo, behar baldin bada, egiaztapen partzial metagarriak sortzeko.

- Ikasleek egindako oharrak hartuko dira eta ikastaroaren balorazio orokorra egiteko eskatuko zaie (programaren nola bete den eta prestakuntzaren ebaluazioa).
- Akatsen bat hautemanaz gero, zentroari jakinaraziko zaio, eta ikastaroaren amaierako ebaluazioan jasoko da.
- Ikastaroaren garapenaren gaineko iritzia eskatuko zaie irakasleei eta tutoreei (programaren nola bete den eta prestakuntzaren ebaluazioa).
- Ikasleei orientazioa emango zaie jasotako prestakuntzak ematen dizkien aukerei buruz, bai eta une horretan, prestakuntza-ibilbidea osatzeko, eta lan-merkatuan sartzeko aukera handiagoa izateko, eskain dakizkiekeen prestakuntza-bideei eta beste enplegu- nahiz prestakuntza-ekintza batzuei buruz ere.

Enplegu eta prestakuntzako teknikariak bi aletan beteko du “Prestakuntza-ekintzaren amaierako bisita” izeneko dokumentua, eta teknikariak eta prestakuntza-zentroak izenpetzen dutenean, kopia bat erantsiko da LAN-F aplikazioan (“Bulego kudeatzailearen jarraipena” botoia) eta prestakuntza-zentroari entregatuko zaio beste kopia.

Enplegu eta prestakuntzako teknikariak gogoan hartuko du, ekintzaren azken balorazioa egiteko. “Kalitatearen jarraipena” fitxan, emandako prestakuntzaren ebaluazioa beteko da, pantailan.

8. PARTE-HARTZAILEEN EBALUAZIOA

Prestakuntza-ekintza amaitu ondoren eta zazpi eguneko epean, prestakuntza ematen duen zentroak edo erakundeak LAN-F aplikazioaren bidez bidali behar du parte-hartzaileen ebaluazioa. Horren aurretik, parte-hartzaile bakoitzaren ebaluazioaren emaitza beteko du, parte-hartzaile bakoitzak izan dituen bertaratze-orduen gutzizkoa eta, ondoren, emaitza adierazita. Prestakuntza-moduluren batean ebaluazioaren emaitza Ez gai baldin bada, prestakuntza-unitate bakoitzaren emaitza adierazi behar da.

8.1. Ikaskuntzaren ebaluazioa

Profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko ikastaroetan, ikastaroaren hasieran aurreikusitako plangintzaren arabera egingo da prestakuntza-ekintzen ebaluazioa, V eta V.I eranskinetan (teleprestakuntzako modalitateak).

Teleprestakuntza-modalitatean egiten baldin bada prestakuntza-ekintza, amaierako ebaluazio-proba presentzial bat egingo da modulu bakoitzean. Profesionaltasun-ziurtagiri bakoitzean kreditatutako zentroetan egingo da proba hori. Moduluren ordu kopuru gutzizkoaren barruan sartuta dago proba horren iraupen-denbora.

LAN-F aplikazioaren barruan: azken emaitza (Gai, Ez gai, Utzita...) beteko du prestakuntzako erakundeak parte-hartzaile guztiekin, eta parte-hartzaile horiek bertaratu diren orduen gutzizkoa adieraziko du modulu bakoitzean. Emaitza hori prestakuntza-ekintza osoa kontuan hartuta izango da, profesionaltasun-ziurtagirikoa bada, eta prestakuntza-modulua, edo prestakuntza-unitatea hala egokituz gero, kontuan hartuta, prestakuntza-ekintza profesionaltasun-ziurtagirikoa bada.

Parte-hartzaileek, modulu baten amaierako ebaluazio-probara aurkeztu ahal izateko, egiaztatu behar dute moduluak edo prestakuntza-unitateak (azken kasu horretan, prestakuntza-unitatekako programazio partziala baldin bada) izandako orduen % 75ean gutxienez ikastaroan parte hartu dutela, ikastaroa bertaratu edo modalitate presentzian egin behar izanez gero. Teleprestakuntzako modalitatean, parte-hartzaileek eginak izan behar dituzte modulu horretarako arautzen diren ikaskuntza-jarduera guztiak (ESS/1897/2013 Aginduaren 18.2 artikulua).

8.1.1 Ebaluazioa balioztatzea VI eranskina eta bertartze-orriak

Enplegu eta prestakuntzako teknikariak LAN-F aplikazioan egiaztatuko du zentroak edo erakundeak VI. eranskineko agiriak erantsi dituela: Ebaluazio-txosten banakatua eta bertaratzeen sinadura-orriak.

- Prestatzaile/tutoreek, VI. eranskinean, agirien bidez adierazi behar dute zer emaitza lortu diren ziurtagiriko modulu bakoitzean, edo, horrela behar baldin badu, prestakuntza-unitate bakoitzean. Aurrerago azalduko den kalifikazio-sistemaren arabera egin behar dute hori. Txosten hori bi zatitan banatzen da:

- Alde batetik, ikaskuntza-prozesuan lortutako puntuazioak.
- Bestetik, modulu, edo, kasuan kasu, prestakuntza-unitate bakoitzaren amaierako ebaluazioaren emaitzak.

Enplegu eta prestakuntzako teknikariak egiaztatuko du: VI. eranskinean islatzen diren emaitzek bat egiten dutela "Asistentzia-kontrola eta ebaluazioa" fitxan mekanizatu direnekin (Gai / Ez gai).

- Bertaratzea kontrolatzeko orriak. Enplegu eta prestakuntzako teknikariak egiaztatuko du:

- Adierazi diren bertaratze-orduak bat datozela sinadura-orrietan egiaz sinatu diren bertaratzeekin.
- Profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko ekintza baldin bada, moduluen arabera daudela beteta sinadurak, eta modulua irakasteko egunek bat egiten dutela hasierako komunikazioan ageri den egutegian zehaztutako egunekin.
- Prestakuntza-ekintza edo -moduluko orduen, gutxienez, % 75era bertaratu izana. Ez baldin bada baldintza hori betetzen, ezingo da ikaslea ebaluatu, eta "Utzita" egoeran izango da.

Modalitatea teleprestakuntzako baldin bada, erakundeak ekintzaren tutoretza presentzialetara eta ebaluazio-

probetara igoko ditu bertaratzeak. Ebaluazioaren atalean erantsi behar dira, era berean, “Jarraipen-txostenak”. Teleprestakuntzako plataformatik deskargatuko ditu prestakuntza-erakundeak. Urriaren 10eko ESS/1897/2013 Aginduaren II. eranskinean arautzen diren baldintzak bete behar dituzte jarraipen-txostenek.

- Eskaneatu egin behar dira parte-hartzaileek egindako probak eta LAN-F aplikaziora igo behar dira (deialdiaren 13.11. art.). Parte-hartzailearen batek ez baldin badu modulu bat gainditzen, baina moduluko prestakuntza-unitateren bat gainditzen baldin badu, VI. eranskinaren kopia bat emango zaio, prestakuntza-unitate horiek gainditu dituela egiaztatu eta gainditu gabe dauzkanak egiteko aukera izan dezan. Modu horretan jokatu da, era berean, programazio partzialeko prestakuntza-unitateekin.

Parte-hartzaileak moduluaren azken prestakuntza-unitatea gainditzean, dagokion prestakuntza-zentroak beste ebaluazio-txosten banakatu bat egingo du, eta txosten horretan adieraziko ditu aurrez gaindituak zituen prestakuntza-unitateen kalifikazioak eta orain ikasi dituen prestakuntza-unitateetan lortu dituen kalifikazioak (VI. eranskina).

Zuzena ez baldin bada, zuzentzeko eskatuko du, zuzen emana izan dadin. Zuzena baldin bada, **Ebaluazioa balioztatuko du.**

Lanbideko teknikariak, ebaluazioa balioztatu ondoren, ebaluazio-akta, diplomak, bertaratze-ziurtagiriak (emaitza Ez gai baldin bada) edo dagozkion egiaztapen partzial metagarri egokiak sortuko dira, eta zentroak horiek inprimatzeko eta ikasleei emateko aukera izango du.

Ebaluazio-akta deskargatuko du prestakuntzako zentroak edo erakundeak, eta, hura sinatu ondoren, aplikazioaren “Beste gestio-agiri batzuk” atalera igoko du.

BEHAR-BEHARREZKOA DA ERAKUNDEAK ETA ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA TEKNIKARIAK ARRETA HANDIZ BETETZEA EBALUAZIO-DATU HORIEK (ZENTROAK BALIOZTATU AURRETIK ETA TEKNIKARIAK BALIOZTATU AURRETIK), BALIOZTATZEN BALDIN BADIRA, ERREGISTRO OFIZIALA DAKARTEN AGIRIAK SORTZEN DIRELAKO ETA OSO ZAILA DELAKO ATZERA EGITEA ETA DATUAK ESTATUKO ETA ERKIDEGOETAKO ERREGISTROEI KOMUNIKATZEA.

9. PRESTAKUNTZA PRAKTIKOA LANTOKIAN EGITEKO MODULUA ETA LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKAK “PRAKTIKAK” LAN-F aplikazioan

Profesionaltasun-ziurtagirirako ikastaroetan, zentroak prestakuntza praktikoaren modulua lantokian egitea aurreikusita edukiko du ikasle guztientzat, kasuan kasuko errege-dekretuan xedatutako gutxieneko denboran edo harik eta 200 ordu bete arte, gehienez ere.

Profesionaltasun-ziurtagiria arautzen duen errege-dekretuaren II. eranskinean adierazitako edukiak izan behar ditu praktikak.

Zentroak tutore bat izendatuko du lantokiko prestakuntza praktikoko modulurako, eta hura izango da prestakuntza-programa adostuko duena enpresarekin eta, enpresak izendatutako tutorearekin batera, ikasleen jarraipena eta ebaluazioa egingo dituen. Horretarako, prestakuntza-programak ebaluazio-irizpide behagarri eta neurgarriak izango ditu.

Modulu hori beti izango da presentziala edo bertaratzekoa.

Profesionaltasun-ziurtagirietan prestakuntza praktikoa lantokian egiteko modulua eta gainerako prestakuntza-ekintzetan laneoak ez diren praktikak prestakuntza-ekintza bakoitzeko “Praktikak” fitxaren bidez garatuko dira. LAN-F aplikazioaren bitartez helaraziko diren hitzarmen edo akordioen bidez taxutuko dira praktikaldiok, praktketan hasteko jarritako eguna baino, gutxienez, 7 egun lehenago.

Praktika profesionalak, aukeran, gainerako prestakuntza-moduluak burutu eta gero egingo dira, eta modulu horietan ebaluazio ona lortuz gero. Gehienez ere, epe hauen barruan hasi behar dira praktketan: 2 hilabeteren barruan, baldin prestakuntza-ekintza hori ez badago profesionaltasun-ziurtagiriren bati lotuta, eta 4 hilabeteren barruan, baldin prestakuntza-ekintza kurtsoa amaitutakoan profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko bada. 2018ko deialdiaren 3.5 artikulua

dioenaren arabera baldintzatuta daude, nolanahi, bi epeok. Salbuespenezko arrazoiek bultzatuta eta justifikatuta baldin badago, lanbide-praktikak gainerako prestakuntza-moduluak irakatsi bitartean egitea baimen dezake Lanbideak.

Praktikak Euskal Autonomia Erkidegoko lan-zentroetan egin beharko dira, behar bezala justifikatutako arrazoirik ez bada, betiere; halakoetan, Lanbidek - Euskal Enplegu Zerbitzuak salbuespena eman beharko du aurretik.

Praktikak hasi baino lehen, akordio horren berri eman beharko zaie enpresako langileen legezko ordezkariari. Baldintza hori bete dela ziurtatzeko, langileen legezko ordezkariak hitzarmenari buruzko informazioa jaso, jaso dutela adierazteko agiria erantsi beharko da (eredu ofiziala erabili beharko da horretarako, LAN-F aplikaziotik hartuta).

Eguneko iraupenak ezin du izan, inoiz ere, 8 orduetik gorakoa.

Lantokiko prestakuntza praktikoaren modulua abiatu aurretik, nahitaezkoa da Lanbidek praktiken hitzarmena balioztatzea. Ez baldin bada izapide hori betetzen, baliogabetu egin daitezke nahitaezko baimen hori ez duten praktikak (deialdiaren 14.6 artikulua).

Fitxa horretan, prestakuntza-ekintza gainditu duten parte-hartzaile guztiak zerrendatuko dira, eta bakoitzean honako hiru hauen artean aukeratu behar da:

1. **Praktiken hitzarmeneko datuen esperoan:** prestakuntzako zentroak edo erakundeak “Bidali jarduera mota” sakatuko du, “Gehitu enpresa” klikatuko du eta hitzarmenaren datuak betetzeko formulario batera iritsiko da: enpresaren izena, tutorea, egutegia, ordutegia, edukiak, etab.

Datuak bete ondoren, zentroak Hitzarmena gorde eta jaistea sakatu behar du, eta enpresak, zentroak eta ikasleak sinatu ondoren, berriz eranstean da aplikazioan, eta “Bidali praktika” sakatzen da.

1.1. Praktikak balioztatzea

Lanbideko teknikariak baliozkotzat joko du praktika, edo baztertu egingo du. Horretarako, erantsitako dokumentuak berrikusiko ditu, eta honako hau egiaztatu:

- Akordioa hiru aldeek sinatu dute: enpresak, ikasleak eta prestakuntza-erakundeak.
- Egutegia bat datorrela hitzarmenean adierazitako data eta ordutegiarekin.
- Iraupena eta edukiek bat egiten dutela profesionaltasun-ziurtagiria arautzen duen errege-dekretuarekin.
- Legezko ordezkariak jakinarazteko agiria sinatuta dago.

Berrikusi ondoren, eta dena ondo baldin badago, praktika Balioztatuko du Lanbideko teknikariak; horrela ez baldin bada, hemen klikatuko du:

“Baztertu praktika”: horren arrazoa emateko eskatuko digu. Akatsa zuzenduko du zentroak eta berriro bidaliko du praktika, Lanbidek balioztatu dezan.

Praktika abiatu ondoren, aldaketaren bat egin behar baldin bada, hau egingo du teknikariak, erakundearen adierazpenari jarraituz:

“Berregin hitzarmena”: Hitzarmena aldatuko du erakundeak eta Bidali praktikara bueltatuko da.

Praktikari ekin aurretik, ikasleak praktikatik salbuets dezaketen eskatzen baldin badu edo uko egiten baldin badio, hau egingo du teknikariak:

“Ezabatu praktika”: pantailatik desagertuko dira hitzarmenaren datuak.

Aukera egongo da “Uko egin” eta “Ezetsitako salbuespena” egoerak atzera botatzeko, hartara, “Aukeratu” egoera

hautatu eta beste fluxu bat hasteko modua izan dadin.

1.2. Praktiken amaiera

Praktika amaitu ondoren, “Bertaratzea eta Ebaluazioa” bidaliko du prestakuntza-erakundeak, 7 eguneko epean. Horretarako:

- Hautatako parte-hartzailea ebaluatuko du, honako aukera hauen artean: Amaiera Gai, Amaiera Ez Gai, Utzita laneratzeagatik edo Utzita laneratzea ez den arrazoiren batengatik.
- Bertaratze-sinaduren orriak eta praktiken amaierako ebaluazioaren orria erantsiko ditu (LAN-F aplikazioaren ereduaren).
- Benetan egindako ordu errealak adierazi behar dira (ikasleak praktiken moduluaren gutxienez % 75 beteta bukatu baditu praktikak, profesionaltasun-ziurtagiriaren kasuan, “gai” edo “ez gai” jarrita egingo zaio ebaluazioa).

Lanbideko teknikariak “Laguntza eta ebaluazioa” Balioztatu behar ditu, dagokion diploma eta profesionaltasun-ziurtagiriaren eskaera sor daitezten. Egiaztatuko du praktikara bertaratzearen sinadurak bat datozela hitzarmenean eta egutegian adierazten direnekin.

Dena zuzen ez baldin badago, zuzentzeko eska dezake, zuzendua izan dadin.

2. Salbuespena eskatzen baldin bada:

Profesionaltasun-ziurtagirietan, praktiken modulua egitetik salbuetsirik izango dira:

- Enpleguarekin txandakatutako prestakuntza-programetako ikasleak.
- Gutxienez hiru hileko lan-erperientzia dutela eta azken bost urtean gutxienez 300 lanordu egin dituztela egiaztatzen dutenak, hori guztia bat datorrelarik profesionaltasun-ziurtagiriko aipatu moduluan jasotako gaitasunekin. Gizarte Segurantzaren ziurtagiriarekin eta enpresa-ziurtagiriarekin egiaztatuko da, denbora-tartea eta egindako jarduera zehaztuta, edo, autonomoen kasuan, denborari eta jarduerari buruzko erantzukizunpeko adierazpenarekin.
- Boluntariotzan edo beketan gutxienez hiru hileko esperientzia dutela eta azken bost urtean gutxienez 500 ordu egin dituztela egiaztatzen dutenak, hori guztia bat datorrelarik profesionaltasun-ziurtagiriko aipatu moduluan jasotako gaitasunekin. Egindako jarduerak eta beroriek garatzeko erabilitako denbora jasoko dituen erakundearen edo enpresaren ziurtagiri bidez egiaztatuko da.
- Profesionaltasun-ziurtagiriko aipatu moduluan jasotako gaitasunekin eta iraupenarekin bat datozen enpresa-praktikak egin dituztenak. Praktiken ziurtagiri bidez egiaztatuko da, eta ziurtagirian haien iraupena eta edukia jasoko dira.

Salbuespena balioztatzeko, eskatzaileak agirien bidez justifikatu behar du praktiken moduluaren egiteko guztiak bete dituela eta ziurtagiriak adierazitako iraupenarekin egin dituela.

Ezin da salbuetsi inor ere profesionaltasun-ziurtagiri baten praktiken modulua egitetik, lanbide-eremu eta -familia bereko beste ziurtagiri baten praktiken modulua egin duelako soilik.

Honako hau izango da salbuespena eskatzeko prozedura:

- *Ikasleak, dokumentazio egokia aurkeztuta, salbuespena eskatuko du, eta prestakuntza-zentroari entregatuko dio.*
- *Zentroak, LAN-F aplikazioko Praktikak fitxan, “Salbuespena eskatzen du” aukera hautatuko du ikasle jakin batentzat eta dagokion dokumentazioarekin batera igo behar du eskaera.*
- *Salbuesteko eskaera paper-formatuan ere entregatu behar da, sarrera-erregistroa egiteko.*
- *Regexlanen bidez ebatziko du eskaera hori enplegu eta prestakuntzako teknikariak, eta ikasleari jakinaraziko dio eskaeraren emaitza.*

- LAN-F aplikazioan, "Kudeatu praktikak" botoitik sartuta, "Onartu/Baztertu salbuespena" botoia izango du aukeran teknikariak. Sartzean, "Salbuetsita" edo "Salbuespena baztertuta" eta Regexlaneko espediente-zenbakia markatuko ditugu. "Gorde" sakatzean, "Salbuespena eskatuta" egoeratik "Salbuetsita" edo "Ez Salbuetsia" egoerara aldatuko da.

3. **Praktika edo prestakuntza-modulua egiteari uko egitea:** Edukiontzi bat irekiko da, zentroak ukoa eransteko dokumentazio egokiarekin batera. Dokumentazio hori onargarria ez bada, teknikariak "Ukoa desegin" aukeratuko du.

10. PROFESIONALTASUN-ZIURTAGIRIAK ESKATZEA

Egiaztapen Partzial Metagarriak (EPMak) aplikaziotik sortzen dira zuzenean, prestakuntza-ekintza baten ebaluazioa berrikusten denean.

Praktiken ebaluazioa edo praktiken salbuespen positiboa baliozkotu ondoren sortzen dira profesionaltasun-ziurtagiriak.

Prestakuntza-erakundeak deskargatuko ditu profesionaltasun-ziurtagiriaren eskaerak, eta, parte-hartzaileek horiek sinatu ondoren, Lanbidera eramango ditu, denak batera.

Prozedura honetan EZ DA BEHARREZKOA SARRERA ERREGISTROA EMATEA, baina jada eman bazaio, tramitatu ahal da. LANF-ek, hala badagokio, sarrera-erregistroa ematen du eta REGEXLAN-en sortzen den espedientearekin lotzen du. REGEXLAN-en, espedientea "igortzeko zain" geratzen da titulua inprimatzera bidaltzen denerako prest.

PROZEDURA:

Interesdunaren prestakuntzako kontutik (IFKrekin sartzea dago "langilearen kontsulta" atalean):

Lortutako Profesionaltasun Ziurtagiriaren lerroan, "Profesionaltasun Ziurtagiria eskatu" dioen botoi laranja agertzen da.

Unidad de Competencia	Horas	Valoración	Vía de obtención	Fecha Obtención	Fecha Envío R24	Fecha Envío R1224	Fecha Recepción SEFC	
TMVIG0409 - MANTENIMIENTO DEL MOTOR Y SUS SISTEMAS AUXILIARES (Nivel: 2) - MP0255 (Módulo de prácticas asociado al curso)	520	Curso de certificado (GAITUZ)		4/04/2016				Descargar Solicitud CP Solicitar CP
TMVJ0108 - CONDUCCION DE AUTOBUSES (Nivel: 2) - MP0100 (Módulo de prácticas asociado al curso)	370	Curso de certificado (SUBV. LANBIDE - 16481849)		25/04/2017				

Botoi horretan klik egitean, sinatutako eskabideak sarrera erregistroko zenbakia daukan galdetzen da. EZ DA BEHARREZKOA eskabidea LANF-era igotzea. (Jatorria Zerbitzu Zentraletara bidaliko da espediente-zenbakia esleitu ondoren).

Formación acreditada

Unidad de Competencia	Horas	Valoración	Vía de obtención	Fecha Obtención
IMAQ0208 - MANTENIMIENTO Y MONTAJE MECÁNICO DE EQUIPO INDUSTRIAL (Nivel: 2) - MP0130 (Módulo de prácticas asociado al curso)	390	Curso de certificado		2/06/2017
UC0116_2 - Montar y mantener maquinaria y equipo mecánico	270	Agto	Formación Lanbide	10/05/2017
UC0117_2 - Mantener sistemas mecánicos hidráulicos y neumáticos de líneas de producción automatizadas	240	Agto	Decreto 395	5/05/2016
MP0130 - Módulo de prácticas profesionales en laborales de mantenimiento y montaje mecánica de equipo industrial	80	Agto	Módulo de prácticas asociado al curso	2/06/2017

Solicitud firmada

Solicitud SIN registro de entrada
 Solicitud CON registro de entrada

NºReg.Entrada:
 Fecha presentación:

Formación (Lanbide): 1.2

Sarrera-erregistroa badauka, erregistro-zenbakia (2017/999999) eta aurkezpen data (2017-01-01) eskatuko ditu automatikoki eta espediente berria sarrera-erregistroarekin lotuko du REGEXLAN-en.

Sarrera-erregistrorik ez badauka, automatikoki sarrera-zenbakia ematen dio eta REGEXLAN-en sortzen duen

espedientearekin lotzen du.

Prestakuntzako kontuan, prestakuntza markatuta geratuko da, "Eskabidea bidali da" adierazita.

Aplikazioak eskabideak gauzez prozesatzen ditu. Beraz, hurrengo egunean REGEXLAN-eko espediente-zenbakia emango digu.

No tiene ningún idioma.

Formación acreditable									
Unidad de Competencia	Horas	Valoración	Vía de obtención	Fecha Obtención	Fecha Envío R34	Fecha Envío R4224	Fecha Recepción SEPE		
SCS0208 - ATENCIÓN SOCIOASISTENCIAL A PERSONAS DEPENDIENTES EN INSTITUCIONES SOCIALES (Nivel: 2) - MP0029 (Módulo de prácticas asociado al curso)	450	Curso de certificado (SUBV. LANBIDE - 16010171)		2/06/2017				Solicitud enviada: 2017/CEPAP/030966 Certificado valoración positiva CP	

No tiene ninguna competencia estatal.

Espediente-zenbaki hori idatzi beharko dugu hurrengo egunean eskabidearen goiburuan, geroago Zerbitzu Zentraletara bidaliko dugun horretan. Eskabide asko mekanizatu badira, aukera dago azken egunetan mekanizatutako eskabideen Excela jasotzeko, NANA, Espediente-zenbakia, Erregistro-zenbakia eta data adierazita atal honetan: "Langileak"->"Etengabeko hobekuntzarako txostenak"->"Regexlan-era igorritako Profesionaltasun Ziurtagirien eskabideak". Hemen espediente zenbakiak "bilatu" ahal dira, banaka sartu behar izan gabe.



Administración Centros y Usuarios

Otras consultas para gestión de Trabajadores > Informes

Solicitudes de CP remitidas a regexlan

Listado

Código	Descripción	Tipo de documento	Numero de documento	Código AF	Numero de expediente	Numero de registro	Fecha expediente
1MPP0208	09 - Curso de certificado	D	78895265K		2017/CEPAP/035318	2017/237434	20/07/2017
HOTG0208	09 - Curso de certificado	D	30663041Q		2017/CEPAP/035317	2017/235114	20/07/2017
HOTG0208	09 - Curso de certificado	E	X5486807L		2017/CEPAP/035316	2017/235115	20/07/2017
HOTG0208	09 - Curso de certificado	D	22756998Q		2017/CEPAP/035315	2017/235111	20/07/2017
HOTG0208	09 - Curso de certificado	D	30664024X		2017/CEPAP/035314	2017/235106	20/07/2017
HOTG0208	09 - Curso de certificado	D	16049705Y		2017/CEPAP/035313	2017/235103	20/07/2017
HOTG0208	09 - Curso de certificado	D	14263729A		2017/CEPAP/035312	2017/235113	20/07/2017
HOTG0208	09 - Curso de certificado	D	16075833Y		2017/CEPAP/035311	2017/235107	20/07/2017
HOTG0208	09 - Curso de certificado	D	45624369M		2017/CEPAP/035310	2017/235104	20/07/2017
HOTG0208	09 - Curso de certificado	D	14609071T		2017/CEPAP/035309	2017/235108	20/07/2017

2,569 registros coinciden con los criterios de búsqueda

Volver

Egiatztatutako profesionaltasun-ziurtagirien egiaztapen-dokumentua (balorazio positiboa) LANF-tik zuzenean bidaltzeko aukera ireki da.

Horretarako, Prestakuntza-kontuan sartu behar da, eta, "Prestakuntza egiaztagarria" eta PZaren lerroan agertuko da PZ-ren balorazio positibozko ziurtagiria sortu eta inprima daiteke.

Eskatzaileari entregatzen bazaio, bulegoko zigilua jarri behar zaio, eta irteera-erregistroa eman. "BIDALTZEKO ZAIN" dauden espedienteek hiru edo lau hilabeteko epean edukiko dute titulua bidalita.

11. NOLA EGIN PROFESIONALITASUN-ZIURTAGIRIETAKO PRESTAKUNTZA-MODULUEN EBALUAZIOA

Profesionaltasun-ziurtagirietako prestakuntza-moduluen ikaskuntzaren emaitzen ebaluazioa (34/2008 ERREGE-DEKRETUA ETA ESS/1897/2013 AGINDUA)

Ohar orokorrak

Moduluen eta, hala behar baldin bada, prestakuntza-unitate bakoitzaren ebaluazio sistematiko eta jarraitua egingo dute tutore-prestatzaileek, ikasketaren emaitzak eta, horrenbestez, lanbide-gaitasunak lortu direla egiaztatzeko.

Ikuspegi oso batetik egin behar da ebaluazioa, lanbideari dagozkion jakintzak eta trebetasunak ebaluatuko dituzten proba teorikoak eta praktikak eginez.

Ebaluazioaren aurretiazko plangintza

Ikasleen ebaluazioa aurretiko planifikazioaren arabera neurtuko da, V. eranskinean esandakoaren arabera, hala, ikasketa-prozesuan zehar ebaluatuko dira ikasleak, bai eta modulu bakoitzaren amaieran ere, eranskinean jasotako ebaluazio-irizpideak eta gaitasunak erreferentziatzen hartuta.

Planifikazio horretan adieraziko dira, gutxienik, modulu bakoitzarentzat eta, beharrezkoa baldin bada, prestakuntza-unitate bakoitzarentzat, ebaluazio-daten aurreikuspena, ebaluazioa egiteko lekuen adierazpena, erabiliko diren ebaluazio-bitartekoak eta horien erabileraren iraupena.

V. eranskinean jasoko da planifikazio hori:

- **Ikasketa-prozesuan zeharreko ebaluazioa:** zenbait metodo eta tresna batera erabiliz egingo da, hala nola prestakuntza-prozesu horretan egindako lanen, jardueren eta proben balorazioa.
- **Modulu bakoitzaren amaierako ebaluazioa:** prestakuntza-modulu bakoitza bukatzean, amaierako ebaluazio-proba bat aplikatuko da, teoriko-praktikoa, eta modulu horri lotutako gaitasun, ebaluazio-irizpide eta eduki guztiei buruzkoa.

Moduluaren egiturak prestakuntza-unitateak baldin baditu, horietako bakoitzean lortu diren puntuak jakiteko moduan prestatuko da proba hori.

Modulu bat osatzen ez duten prestakuntza-unitateentzat programatzen baldin bada profesionaltasun-ziurtagirien prestakuntza, hari dagokion unitatearen edo dagozkion unitateen gaitasun eta ebaluazio-irizpide guztiak hartuko ditu kontuan amaierako ebaluazio-probak, prestakuntza-unitate bakoitzean lortutako emaitzak hautemateko moduan (art. 32.1).

Amaierako ebaluazio-probara aurkezteko:

- Ikasleek, modalitate presentzian, justifikatu behar dute modulu bakoitzaren, edo, programazio partziala izan baldin badu, prestakuntza-unitatearen ordu guztien gutxienez ehuneko 75eko bertaratzea izan dutela.
- Teleprestakuntzako modalitatea baldin bada, eginak izan behar dituzte modulurako ezarrita dauden ikaskuntza-jarduera guztiak.

Ebaluaziorako metodoak eta tresnak

Nolanahi ere, ebaluazio-irizpideetan eta gaitasunetan bildutako ezagutza, trebetasun eta abilezien arabera taxutu beharko dira ebaluatzeko metodoak nahiz tresnak, eta ebaluazioa objektiboa, fidagarria eta baliozkoa izango dela ziurtatu beharko da.

Ebaluazio-tresna bakoitzak bere zuzenketa- eta puntuazio-sistema izango du, baita ikasleek lortutako emaitzak

ebaluatzeko neurketa-irizpideak ere.

Kalifikazio-sistema

Emaitzak 0 eta 10 bitarteko puntuazioen bidez adieraziko dira.

- **Ikasketa-prozesuan zeharreko ebaluazioa:** egin diren ebaluazio-lanen bidez eta erabili diren ebaluazio-tresnen bidez lortu den puntuazioa adieraziko du modulu edo unitate bakoitzean. Ebaluazioaren plangintzan zehaztutako jarduerak eta tresnak izan behar dute (V. eranskina). Puntuazio horien guztien batez bestekoa kalkulatu da. Azken puntuazioaren % 30 izango da puntuazio hori.
- **Moduluaren amaierako ebaluazio-proba:** moduluaren amaierako ebaluazio-proban lortutako puntuazioa da. Modulua prestakuntza-unitateetan egituratuta baldin bada, haren prestakuntza-unitate guztien puntuazioak adieraziko dira. Azken puntuazioaren % 70 izango da puntuazio hori.

Nola gainditu prestakuntza-modulua: gutxienez 5 puntu lortu behar dira haren amaierako ebaluazio-proban, eta, halakorik baldin bada, hura osatzen duten prestakuntza-unitate guztietan. Moduluan lortutako amaierako kalifikazioa Gai hitzaren aldaerekin zehaztuko da, eta parentesien artean adieraziko da ikasleak lortutako azken puntuazioa.

Kalifikazioa “Ez gai” izango da, baldin eta 5 puntu baino gutxiago eskuratu baldin baditu prestakuntza-unitateren batean edo guztietan.

Prestakuntza-ekintza amaitu baino lehen, bigarren deialdi bat eskainiko zaie moduluaren amaierako ebaluazio-proba lehen deialdirako ezarri den datan gainditu ez dutenei edo, justifikatutako arrazoiren batengatik, proba hori egin ez dutenei, eta aurrekoaren pareko beste amaierako proba bat egingo zaie.

Nola gainditu prestakuntza-unitatea: modulu oso baten barruan programatutako prestakuntza-unitateak edo prestakuntza-unitateen bidez egindako programazio partzialak unitateak gainditzeko, gutxienez 5 puntu lortu behar dira unitate horien amaierako ebaluazio-proban.

Moduluaren amaierako kalifikazioa: ikasketa-prozesuan zeharreko ebaluazioan lortutako batez besteko puntuazioa eta moduluaren amaierako ebaluazio-proban lortutako puntuazioa batu ondorengo emaitza da, eta horien haztapena ehuneko 30ekoa eta ehuneko 70ekoa izango da, hurrenez hurren.

Azaldu berri den haztapena erabili ondorengo emaitzaren balioa 5 baino txikiagoa baldin bada, baina, “Moduluaren amaierako ebaluazio-probaren” puntuazioa 5ekoa baldin bada gutxienez, moduluaren azken kalifikazioa “GAI”(5) izango da.

Modulu bakoitzerako zehaztutako prestakuntza-unitate guztiak gainditzeko baldin baditu eta urtero, gutxienez eta jarraian, prestakuntza-unitate bat ikasten baldin badu, prestakuntza-modulua ziurtapena lortzeko eta dagokion gaitasun-unitatea egiaztatzeko eskubidea izango du parte-hartzaileak.

EBALUAZIO-PROZESUAREN DOKUMENTAZIOA

Ebaluazio-prozesua egin ondoren (V. eranskineko plangintzari jarraikiz), prestatzaileek edo tutoreek idatziz jasoko dituzte modulu bakoitzean edo ziurtagiriaren prestakuntza-unitateetan lortutako emaitzak, dokumentu hauen bidez:

- VI. eranskina: Ikasle bakoitzaren ebaluazio-txosten banakatua. Txosten horrek bi zati izango ditu:
 - Alde batetik, ikaskuntza-prozesuan lortutako puntuazioak.
 - Bestetik, modulu, edo, kasuan kasu, prestakuntza-unitate bakoitzaren amaierako ebaluazioaren emaitzak.
- Ebaluazio-akta, amaierako kalifikazioak “ez gai” edo “gai” hitzak erabilia zehaztuko dituenak.

Parte-hartzailearen batek ez baldin badu modulu bat gainditzeko, baina moduluko prestakuntza-unitateren bat gainditzeko baldin badu, VI. eranskinaren kopia bat emango zaio, prestakuntza-unitate horiek gainditu dituela egiaztatu eta gainditu

gabe dauzkanak egiteko aukera izan dezan. Modu horretan jokatu da, era berean, programazio partzialeko prestakuntza-unitateekin.

Parte-hartzaileak moduluaren azken prestakuntza-unitatea gainditzean, dagokion prestakuntza-zentroak beste ebaluazio-txosten banakatu bat egingo du, eta txosten horretan adieraziko ditu aurrez gaindituak zituen prestakuntza-unitateen kalifikazioak eta orain ikasi dituen prestakuntza-unitateetan lortu dituen kalifikazioak (VI. eranskina).

Modulu bakoitzerako zehaztutako prestakuntza-unitate guztiak gainditzen baldin baditu eta urtero, gutxienez eta jarraian, prestakuntza-unitate bat ikasten baldin badu, prestakuntza-modulua ziurtapena lortzeko eta dagokion gaitasun-unitatea egiaztatzeko eskubidea izango du parte-hartzaileak.

V. ERANSKINA

IKASKUNTZA PROZESUAREN EBALUAZIOA

ESPEZIALITATE KODEA		ESPEZIALITATEA								
EKINTZA KODEA		IRAUPENA (Orduak)	HASIERA - DATA		AMAIERA - DATA					
PRESTAKUNTZA ZENTROA					ERROLDA ZK.					
HELBIDEA				HERRIA		LURRALDEA				
			IKASKUNTZA PROZESUAN ZEHAR EBALUAZIOA			Ebaluazioa egitea				
PRESTAKUNTZA MODULUA MF	PU	E1: E2: E3:	EBALUAZIO JARDUERAK ETA TRESNAK¹			Espazioak (ikasgela, lantegia,...)	Iraupena (orduak)	Ebaluazio-datak ⁴		
	PU	E1: E2:								
	PU	E1: E2:								
MODULUAREN AMAIERAKO EBALUAZIO PROBA²(teoriko-praktikoa)³					Espazioak (ikasgela, lantegia,...)	Iraupena (orduak)	Ebaluazio-datak ⁴			
<i>(Adierazi proba zertan datzan)</i>										(1. deialdia)
							(2. deialdia)			

Hura, 34/2008 Errege Dekretuarekin eta 1897/2013 Orden ESS bat etorri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritzan Orokorriari JAKINARAZTEN ZAIO.

_____ 20__ (e)ko _____ aren ___(a)

LANBIDEren O.E.

HEZIKETA ZENTROA / ENTITATEAK

(zigu) (zigu)

(zigu) (zigu)

Sin.:

Sin.:

¹ Moduluak prestakuntza-unitateak baldin baditu, haien kodea adierazi behar da.

² Ebaluazioko jarduerak eta tresnak identifikatu behar dira (E1, E2;...), eta izendapen labur bat eman behar zaie (kasu praktikoak, simulazioak, proba objektiboak eta/edo erantzun irekiko probak).

³ Adierazi moduluaren amaieran egingo den proba teoriko-praktikoaren egitura.

⁴ Ebaluazioaren datak eguneratuta izango dira administrazio eskudunari prestakuntza-ekintzen hasierako komunikazioa egiten zaion unean.

VI. ERANSKINA
EBALUAZIO TXOSTEN INDIVIDUALIZATUA

ESPEZIALITATE KODEA		ESPEZIALITATEA	
EKINTZA KODEA		IRAUPENA (Orduak)	
PRESTAKUNTZA ZENTROA		HASIERA DATA	AMAIERA DATA
HELBIDEA		HERRIA	ERROLDA ZK.
			LURRALDEA

IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK	NAN / AIZ

PRESTAKUNTZA MODULUA	EBALUAZIOA IKASKUNTZA PROZESUAN ZEHAR						MODULUAREN AMAIERAKO EBALUAZIOA PROBA		MODULUAREN AMAIERAKO KALIFIZAZIOA ⁴	
	Prestakuntza moduluaren kodea eta izena	Prestakuntza unitateak	Ebaluazio-jarduera eta -tresnen emaitzak ¹					Batez besteko puntuazioa ²		1. Deialdia ³
E1			E2	E3	E4	...				
PM	PU									
	PU									
	PU									
	PU									
	PU									
	Prestakuntza unitaterik gabeko moduluaren kodea eta izena	Ebaluazio-jarduera eta -tresnen emaitzak ¹					Batez besteko puntuazioa ²	1. Deialdia ³	2. Deialdia ³	MODULUAREN AMAIERAKO KALIFIZAZIOA ⁴
		E1	E2	E3	E4	...				
	PM									

_____ 20__ (e)ko _____ aren ____ (a)

Prestakuntza-zentroaren edo – erakundearen ordezkaria

(zigilua)

Sin.:

¹ Erabili diren ebaluazioko jardueren eta tresnen bidez, hau da, ebaluazioaren plangintzan adierazitako jarduera eta tresnen bidez lortu diren puntuazioak idatzi behar dira lauki bakoitzean.

² Ebaluazio-tresnen bidez lortu diren puntuazioen batez bestekoa idatzi behar da.

³ Moduluaren amaieran eta aurreikusitako datan egindako ebaluazio-proban lortutako emaitza idatziko da (1. deialdia). Moduluak prestakuntza-unitateak baldin baditu, unitate horietan lortutako puntuazioa adieraziko da.

⁴ Moduluaren amaieran eta aurreikusitako datan egindako ebaluazio-proban lortutako emaitza idatziko da (2. deialdia). Moduluak prestakuntza-unitateak baldin baditu, unitate horietan lortutako puntuazioa adieraziko da.

⁵ Moduluan lortutako amaierako kalifikazioa Gai hitzarekin zehaztuko da (baldin eta prestakuntza-unitate guztiak gaintu baldin baditu), eta parentesi artean adieraziko da parte-hartzaileak lortutako azken puntuazioa. Azken puntuazio hori lortzeko, batu egingo dira ikasketa-prozesuan zeharreko ebaluazioa lortutako batez besteko puntuazioa eta moduluaren amaierako proban lortutako batez besteko puntuazioa (baldin eta prestakuntza-unitateka egitura baldin badago) edo amaierako ebaluazio-proban lortutako puntuazioa. Aldez aurretik, ehuneko 30ean eta ehuneko 70ean haztatuko dira, hurrenez hurren, puntuazio horiek. Haztapan horren kalkulua egin ondoren, puntuazioa 5 baino txikiagoa baldin bada, baina moduluaren batez besteko puntuazioa 5era iristen baldin bada, azken puntuazio hori idatziko da. Ez gai nota jarriko da, baldin eta ez bada prestakuntza-unitateren bat gaintzen.

V. ERANSKINA (Prestakuntza-unitaterik gabeko modulu osorako adibidea)

IKASKUNTZA PROZESUAREN EBALUAZIOA

ESPEZIALITATE KODEA	SSCS0208	ESPEZIALITATEA	MENDEKO PERTSONEI GIZARTE-ERAKUNDEETAN GIZARTE- ETA OSASUN-ARRETA EMATEA				
EKINTZA KODEA		IRAUPENA (Orduak)	370	HASIERA - DATA	2017/20/09	AMAIERA - DATA	2017/12/22
PRESTAKUNTZA ZENTROA						ERROLDA ZK.	
HELBIDEA				HERRIA			LURRALDEA

PRESTAKUNTZA MODULUA	PRESTAKUNTZA UNITATEAK ¹	IKASKUNTZA PROZESUAN ZEHAR EBALUAZIOA		Ebaluazioa egitea		
		EBALUAZIO JARDUERAK ETA TRESNAK ²		Espazioak (ikasgela, lantegia,...)	Iraupena (orduak)	Ebaluazio-datak ⁴
MF1017 ERAKUNDEEN EREMUKO ESKU-HARTZEAK ANTOLATZEKO LAGUNTZA	PU	E1: PROBA OBJETIBOA (egia/gezurra, hutsuneak bete, lotu, erantzun anizkoitza, irekia...)		IKASGELA X	1	2017/09/29
		E2: PROBA PRAKTIKOA (dieta bereziak egin...)		TAILERRA X	1	2017/10/24
		E3:				
	PU	E1:				
		E2:				
		E3:				
	PU	E1:				
		E2:				
		MODULUAREN AMAIERAKO EBALUAZIO PROBA (teoriko-praktikoa)³		Espazioak (ikasgela, lantegia,...)	Iraupena (orduak)	Ebaluazio-datak ⁴
		PROBA OBJETIBOA (egia/gezurra, hutsuneak bete, lotu, erantzun anizkoitza, irekia...)		IKASGELA X TAILERRA X		2017/30/10 <i>(1. deialdia)</i>
		PROBA PRAKTIKOA (Harrera-protokoloa egin...)				2017/31/10 <i>(2. deialdia)</i>
		<i>(Adierazi proba zertan datzan)</i>				

VI. ERANSKINA (Prestakuntza-unitaterik gabeko modulu osorako adibidea)

EBALUAZIO TXOSTEN INDIVIDUALIZATUA

ESPEZIALITATE KODEA	SSCS0208	ESPEZIALITATEA	MENDEKO PERTSONEI GIZARTE-ERAKUNDEETAN GIZARTE- ETA OSASUN-ARRETA EMATEA				
EKINTZA KODEA		IRAUPENA (Orduak)	370	HASIERA DATA	2017/20/09	AMAIERA DATA	2017/12/22
PRESTAKUNTZA ZENTROA						ERROLDA ZK.	
HELBIDEA				HERRIA			LURRALDEA

IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK	NAN / AIZ

PRESTAKUNTZA MODULUA	EBALUAZIOA IKASKUNTZA PROZESUAN ZEHAR						MODULUAREN AMAIERAKO EBALUAZIOA PROBA		MODULUAREN AMAIERAKO KALIFIZAZIOA ⁵
	Ebaluazio-jarduera eta -tresnen emaitzak ²						Batez besteko puntuazioa ²	1. Deialdia ³	
Prestakuntza unitaterik gabeko moduluen kodea eta izena	E1	E2	E3	E4	...				
PM1017	8	5				6,5	4	4	EZ GAI

Kasu honetan ezin da lortutako kalifikazioaren haztapena egin; izan ere, 2. deialdiaren moduluen amaierako kalifikazioan 5 puntu baino gutxiago lortu du.

V. ERANSKINA (Modulua osatzen ez duten prestakuntza-unitetarako adibidea)

IKASKUNTZA PROZESUAREN EBALUAZIOA							
ESPEZIALITATE KODEA	ENAC0108	ESPEZIALITATEA					
EKINTZA KODEA		IRAUPENA (Orduak)	60	HASIERA - DATA	2017/05/22	AMAIERA - DATA	2017/06/06
PRESTAKUNTZA ZENTROA						ERROLDA ZK.	
HELBIDEA				HERRIA			LURRALDEA
IKASKUNTZA PROZESUAN ZEHAR EBALUAZIOA				Ebaluazioa egitea			
PRESTAKUNTZA UNITATEAK ¹	EBALUAZIO JARDUERAK ETA TRESNAK ²			Espazioak (ikasgela, lantegia,...)	Iraupena (orduak)	Ebaluazio-datak ⁴	
PRESTAKUNTZA MODULUA MF1196 KINEN ENERJIA-ERAGINKORTASUNA	PU0572 ERAIKINETAN URA HORNITZEKO ETA SANEAMENDUKO...	E1: Ur-horniduraren instalazioen osagaien analisia.			Eraikin bioklimatikoa	2	2017/05/29
		E2: Saneamenduaren instalazioaren osagaien analisia.			Eraikin bioklimatikoa	2	2017/06/01
		E3:					
	PU	E1:					
		E2:					
		E3:					
PU	E1:						
	E2:						
MODULUAREN AMAIERAKO EBALUAZIO PROBA (teoriko-praktikoa) ³				Espazioak (ikasgela, lantegia,...)	Iraupena (orduak)	Ebaluazio-datak ⁴	
Eraikinen saneamendu eta ur-instalazioen ezaugarrien analisia, eta efizientzia eta energia-aurrezpeneko hobekuntzarako proposamena.				Ikasgela eta tailerra		2017/06/05	
<i>(Adierazi proba zertan datzan)</i>						2017/06/06	
						2017/06/06	
						2017/06/06	

VI. ERANSKINA (Modulua osatzen ez duten prestakuntza-unitetarako adibidea)

EBALUAZIO TXOSTEN INDIVIDUALIZATUA							
ESPEZIALITATE KODEA	ENAC0108	ESPEZIALITATEA	ERAIKINEN ENERJIA-ERAGINKORTASUNA				
EKINTZA KODEA		IRAUPENA (Orduak)	60	HASIERA DATA	2017/05/22	AMAIERA DATA	2017/06/06
PRESTAKUNTZA ZENTROA						ERROLDA ZK.	
HELBIDEA				HERRIA			LURRALDEA
IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK						NAN / AIZ	

PRESTAKUNTZA MODULUA	EBALUAZIO IKASKUNTZA PROZESUAN ZEHAR						MODULUAREN AMAIERAKO EBALUAZIOA PROBA		MODULUAREN AMAIERAKO KALIFIAZIOA ³		
	Prestakuntza moduluaren kodea eta izena	Prestakuntza unitateak	Ebaluazio-jarduerak eta tresnen emaitzak ²					Batez besteko puntuazioa ²		1. Deialdia ³	2. Deialdia ⁴
			E1	E2	E3	E4	...				
PM1196	PU0572		7,5	8				7,75	8,5	EZ DA BETE BEHAR BAITU PRESTAKUNTZA-UNITATE GUZTIAK OSATU	
	PU										
	PU										
	PU										
	PU										

MF1196 moduluak 2 prestakuntza-unitate ditu, eta adibide honetan bat baino ez da programatu. Beraz, ezin da moduluan nota jarri, prestakuntza-unitate guztiak ez baitira osatu. Dokumentu hau ikasleari emango zaio prestakuntza-unitatea gainditu duela baieztatzeko.

2018-2020KO DEIALDIAN ERABILIKO DIREN AGIRIEN ZERRENDA

LAN-F aplikaziotik deskarga daitezke zerrendatuko diren agiri guztiak, pantaila bakoitzeko Deskargatu Txantiloiak ataletik:

HASIERA-DATUAK:

- V. eranskina: Ebaluazioaren plangintza.
- V.I. eranskina: Prestakuntza-lanaren eta ebaluazioaren plangintza (teleprestatuntza)

JARRAIPEN-KONTROLA ETA EBALUAZIOA:

- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak.
- Ikasleen deklarazio sinatua, "Eskubideak eta betebeharrak" dokumentua jaso dutela adierazten duena.
- Moduluen bertaratzearen kontrola.
- VI. eranskina: Ebaluazio-txosten banakatua.
- Hasierako bisitaren orria.
- Amaierako bisitaren orria.

PRAKTIKAK:

- Praktikek izandako bertaratzearen kontrola.
- Praktikak ebaluatzeko orria.
- Praktiketarik salbuesteko eskaera.
- Komunikazio-agiria, legezko ordezkariarentzat.